

# Garapenerako lankidetzeta-proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena

Belen Uranga

Argitalpena



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA



Lankidetzeta



Munduko Hizkuntza Ondarearen  
UNESCO Katedra  
Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico Mundial  
UNESCO Chair  
on World Language Heritage



garabide  
eregabirik

Azterketa honetan adierazitako iritziak ez datoz nahitaz bat berau egiten parte hartu duten pertsonen eta erakundeen iritziekin.

Izenburua: Garapenerako lankidetzeta-proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena

Egilea: Belen Uranga

Edizio teknikoa: Andoni Barreña, Jéssica Dominguez, Itziar Idiazabal

Koordinazioa: Jéssica Dominguez

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutiérrez - Bakun s.l.

Inprimaketa: PRINTHAUS

Lege-gordailua: BI-1876-2013

© Copyright  
UNESCO Etxea, 2013  
Elkarbizitzaren plaza  
Uribitarte pasealekua, 12  
2. lokala  
48001 Bilbo  
[www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

LIBURU HAU EGITEKO ERABILITAKO PAPERA %100 BIRZIKLATUA DA. ZURITZAILA  
OPTIKORIK ETA KLORORIK GABEA.

Liburu honek Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren  
eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza jaso du.



MINISTERIO  
DE ASUNTOS EXTERIORES  
Y DE COOPERACIÓN

Agencia Española  
de Cooperación  
Internacional  
para el Desarrollo

GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



# AURKIBIDEA

<b>Aitzindariak</b>	5
<b>Sarrera. Zergatik Proposamen hau?</b>	6
<b>1. Giza Garapen Iraunkorra garapen-lankidetzaren oinarrian</b>	7
Garapen iraunkorraren hiru dimentsioak	7
<b>2. Nazioarteko erakundeen irizpideen berri</b>	9
2.1 Giza garapena eta kultura elkarlotuta	10
2.2 Milurtekoko Garapen Helburuak	13
2.3 Hizkuntza-eskubideaz	14
<b>3. Hizkuntza kulturaren eta identitatearen adierazpena, hizkuntza-ekologiatik begiratuta</b>	15
3.1 Hizkuntza-ekologiaz	15
3.2 Bizitasun etnolinguistikoaz	16
3.3 Milurtekoko Garapen Helburuak erdiesteko hizkuntza-gaiak. UNESCO Bangkok-eko proposamena	18
<b>4. Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2013-2016</b>	21
<b>5. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Garapen-lankidetzako irizpideak</b>	22
5.1 Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Garapen-Lankidetzarako Gida. Plan Estrategikoa	22
5.2 Arabako Foru Aldundia	23
5.3 Bizkaiko Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea, 2013 -2015. Bizkaiko Foru Aldundia	24
5.4 Garapenerako Lankidetzaren Foru Plana 2013-2016. Gipuzkoako Foru Aldundia	25
5.5 Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen (GGEK) jardura linguistikoaz eta gizarte zibilaren eginkizuna	25
5.6 Nafarroako Lankidetzarako II Plan Zuzendaria 2011-2014	27
<b>6. Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena</b>	29
Hizkuntza biziberritzeko JARDUERA-ESPARRU BERRI BAT txertatzeko hamar arrazoi	31
<b>Bibliografia</b>	33



## Aitzindariak

Hizkuntza gizartearen adierazpide garrantzitsuenetakoa da, baina ez da beti kontuan hartzen garapenerako prozesuak proposatzean.

Munduan hizkuntzak desagertzen ari dira, etengabe, eta egoera horretan, garapenerako lankidetzak aztertu egin behar du zer eginkizun duen hizkuntzak prozesu horietan, bai eta zer-nolako eragina izan dezakeen lankidetzak hizkuntza-galera horretan ere.

Garapenerako lankidetzeta-proiektuetan hizkuntza-ikuspegiaren aplikazio praktikorako, UNESCO Etxeak tresna hau asmatu du. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzaz sortu du, kulturak eta kultura-prozesuek garapenean duten garrantzia nabarmentzeko ahalmenak sortzeko bi proiekturen markoan.

Horretarako, material honek nazioartean dauden zenbait baliabide hartu ditu erreferentziatzat; hain zuzen, garapenerako nazioarteko lankidetzako prozesuetan parte hartzen duten eragileek planetan hizkuntza-dimentsioa sarterko beharraren alge egiten dituzten baliabideak.

Halaber, euskal lankidetzaren erreferentziatzat zenbait plan aztertu ditugu, ikuspegi hori nola lantzen den jakiteko: AECIDen Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2013-2016; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Plan Zuzendaria 2008-2011; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Plana 2013-2016; Bizkaiko Foru Aldundiaren Plan Zuzentzailea 2013-2015; Arabako Foru Aldundiaren Plan Zuzentzailea eta Nafarroako Lankidetzarako II Plan Zuzendaria 20011-2014.

Alde horretatik, gaur egun arte, ateratako lehen ondorioak direla-eta, esan dezakegu erakunde publikoek oso-oso azaletik landu dutela dimentsio hori lankidetzarako plan zuzentzaileetan, eta horregatik, uste dugu ahaleginak batu behar direla, eta esparru horretan jarduten duten eragileekin hitz egin, hizkuntzek garapen-prozesuak lortzen laguntzeko duten ahalmena zehazteko.

Idea hori ez da berria: nazioarteko erakundeak ideia garatzen ari baitira azken hamarkadetan, UNESCOk batez ere, ideiarekin aplikazio praktikoko sakontzeko eta eginkizun hori garapen-eragileei nolabait errazteko.

Beraz, dokumentu honen helburua da hizkuntza-dimentsioa garapenerako lankidetzeta-planetan sartzeko ekintza-ildoak emateko tresna izatea.

Argi dago bidea hasi baino ez dela egin, baina ekarpen hau egin nahi dugu, beste eragile batzuek egingo dituztenekin osatuko dena.

Zalantzarik gabe, erronka garrantzitsua dugu esku artean, baina aldi bereraren, gure lan-planteamenduak eta -estrategiak hobetzeko aukera.

**Jéssica Domínguez Gómez (Programa Cultura para el desarrollo de UNESCO Etxea)**

## Sarrera. Zergatik proposamen hau?

Hizkuntza-aniztasuna, bioaniztasuna eta pobrezia munduko leku jakin batzuetan biltzen direla proportzio handiagoarekin esaten digu Suzanne Romaine (2013) ikertzaileak eta baieztapen honen inplikazio ekonomikoak garbiak direla. Alegia, pobrezia gainditzeko bioaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna kontuan hartu beharreko aldagaiak direla, ematen den laguntza eraginkorra eta iraunkorra izango bada. Lekuan lekuko bio-, kultura- eta giza egoera kontuan hartu gabe, eta bertako gizon eta emakumeen parte-hartze zuzenik gabe, ezinezkoa da laguntza hori eraginkorra izatea.

Ez zaizkigu ezezagunak egiten hizkuntza galtzarekin batera bestelako alorretan ere pobrezia erakusten duten giza taldeak. Ipar eta Hego Amerikako herri indigena askotan begi-bistakoa da galera hori. Eta ekonomia- mailako asistentzia soilak, Estatu Batuetako indioen erreserbak lekuko, agerian uzten du pobrezia gainditu beharrean, bazterketa eta marjinazioa bera ere ezinbesteko mamu bezala ageritu eta gailentzen direla giza talde horietako askotan.

Elebakartasuna, gainerako homogeneizatzeko egoera guztiak bezala, pobrezia seinale izan daitekeela geroz eta nabarmenago agertzen da. Hizkuntza gutxituetako giza taldeak ia derrigorrez dira elebidun edo eleanitzak. Aldiz, elebitasunaren alde onak mendebaldeko hiritar aberatsengan bakarrik onartzen dira: gaztelania eta ingelesa menderatzea, hori bai elebitasun emankorra! Hizkuntza guztiek ahalmen berak izanik honek ez luke horrela izan behar.

Badakigu bi hizkuntza ezberdin ukipen-egoeran daudenean lehia dagoela, eta desorekak (hain) handiak izan ohi direnez, ahularen galera, ordezkapena alegia, izan ohi dela ondorio arruntena, errazena. Hizkuntza-ordezkapena, *shift* famatua, derrigorrezkoa dela ere esan eta sinetsi izan da. Egoera horren aurrean, ordezkapenaren ordezkiz jatorrizko lurralde(et)an zein lurralde orotan hizkuntza gutxitua(k) garatuko d(it)uen elebitasun edo eleaniztasun orokortua eta hizkuntzen arteko elkarbizitza aldarrikatzen dugu, errespetuan eraikitakoa. Hizkuntza eta kultura ororen ekarpena behar-beharrezkoa dugula sinetsita baikaude, gizateriak garapen orekatua izan nahi badu.

Euskaldunok badakigu horretaz guztiaz zerbait, baina badugu ikasteko ere munduan zehar derrigorrezko lehian irauteko ahaleginetan ari diren ehunka hizkuntza-erkidegoren biziraupeneko ekimeneztatik.

Lankidetzak elkartrukea izan behar badu, ez asistentzia soil, hizkuntza-kontuan ageri beharko luke bere indar guztiarekin. Izan ere, bere hizkuntza gorde duen komunitate batek bere aberastasun nagusi horri eutsi eta etorkizuna emateko gogoia eta ahalmena eskuratu baditu, giza talde hori ez da galduko, ez da irentsia eta baztertua izango. Eta gizateria osoak irabaziko du.

Euskaldunok bideratzen dugun lankidetzan ezin dugu hizkuntza albora utzita lan egin. Gure garapenerako hain garrantzitsua den hizkuntza-aldagaia, elebidun eta eleanitz izanez mantendu duguna, eta gizarte osora garatzeko ahaleginean gabiltzana, besteen ahaleginekin trukaturik denontzat aberasgarria izango dela ziur gaude. Horregatik eta horretarako proposamen hau. Ohartu beharko ginateke, Euskal Herrian azkeneko urteotan esperientzia handia metatu dela jatorrizko hizkuntza biziberritzearen inguruan, maila teorikoan, estrategiak zehaztean eta lanabesak eraikitzean. Esperientzia hau trukatzeko izan daiteke euskaldunok lankidetzaren bidez hizkuntza gutxituetako giza taldeei eskaini geniezakeen ekarpen kualitatibo garrantzitsuenetako bat.

**Itziar Idiazabal (Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra)**

**Andoni Barreña (Garabide Kultur Elkartearen lehendakaria)**

# 1. Giza Garapen Iraunkorra garapen-lankidetzaren oinarrian

## Garapen iraunkorraren hiru dimentsioak

XXI. mendeko nazioarteko iritzi publiko eta politikoak badaki gizarte-bizitzan biltzen diren eragile sozialak eta ekonomikoak tokian tokiko ingurumenarekin elkar lotuta daudela; hiru esparrutako aldagaiek harreman ekosistemikoa eraikitzen dutela gizartearen garapen orekatua bilatuz.

Gaur egun, ordea, orekaren orde mundu-mailako krisi anitzen aurrean aurkitzen da gizateria: krisi soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa. Frogatu da, gainera, krisi horien eragilea gizakia dela; eztabaida gutxi dago gizakiaren mugagabeko hazkundean oinarrituriko garapen-ereduak planetaren etorkizuna, eta gizakiaren biziraupena bera, kolokan jartzen duela.

Mundu mailako nazioarteko eragileen artean ingurumen-gaiak eta gizartea espresuki lotu zituen jada 1972. urtean Stockholmen buruturiko *Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuetako Konferentziak*. Horrela dio zehazki:

“1. Gizakia ingurumenaren eragile eta ondorio da [...]. Giza ingurumenaren bi alderdiak, naturala eta artifiziala, ezinbestekoak dira gizakiaren ongizatea ziurtatzeko eta oinarritzeko giza eskubideen gozamenarako, bizitzeko eskubidea bera barne. [...]

3. Garapen-bidean dauden herrialdeetan ingurumeneko arazo gehienak azpigarapenak eragindakoak dira. Giza bizimodu duina izateko gutxienezko baldintzen oso azpitik bizitzen jarraitzen dute milioika pertsonak.”

Ingurumeneko arazo eta balizko konponbideak gizarte-garapenarekin lotuta agertzen dira, beraz. Hogei urte beranduago, mugagabeko hazkundearen ereduari aurre egin nahian *Garapen Iraunkorra* definitu zuen 1987an idatzitako *Brundtland Txostenak*<sup>1</sup>, eta 1992an Rio-ko Munduko Gailurrean<sup>2</sup> kontzeptu berritzaile hori mundu zabalera hedatu zen. Honela definitu zen kontzeptua:

- ***Garapen iraunkorra gaur egungo beharrei erantzuteko garapen modua da, datozen belaunaldien beharrak asetzeko euren gaitasuna arriskuan jarri gabe.***
- ***Garapen iraunkorrek gizakiaren bizitza baldintzatzen dituen hiru esparru elkar lotzen ditu: ekonomia, gizarte-gaiak eta ingurumenaren zaintza.***

Rio-ko Lurraren Gailurraren ondotik hartu zuen dimentsio instituzionala eta soziala garapen iraunkorraren kontzeptuak, aipatzen ari garen hiru dimentsioetan. Harrez gero, beste ekimen batzuetan zehazten joan zen, iraunkortasunaren pentsamenduari jarraiki, esate baterako, 2002an Johannesburgo Gailurretik aurrera, Agenda 21<sup>3</sup> egitasmoaren bitartez. Egitasmo horri jarraiki, giza garapenerako lankidetzaren eta ingurumenaren zaintzarako estrategiak batera joango dira. Bestalde, printzipio horietan oinarriturik *Milurtekoko Garapen Helburuak* planteatu ziren 2000. urtean *Nazio Batuetako Milurtekoko Adierazpenaren* testuinguruan<sup>4</sup> eta, harrez gero, lankidetzaren esparruko plangintza guztietan *helburuak* betetzen laguntzeko lankidetzaren estrategia bateratuak planteatzen dira.

Kontzeptuak gizarte zibilaren baitan ere hedapen zabala izan du, gutxienez maila teorikoan. Inor gutxi saihets dezake iraunkortasunaren ikuspegia, edozein delarik ere abian jartzen duen garapenerako ekimena. Hala ere, onartu behar da praxian aplikatzeko zailtasunak egon badaudela. Ho-

---

1. Nazio Batuen Erakundearen Ingurumena eta Garapen Batzordearen enkarguz, 1987an Gro Harlem Brundtland Norvegiako Lehen Ministroak zuzenduriko batzordeak idatzirik *Gure etorkizun komuna* txostenari deitzen zaio *Brundtland Txostena*.

2. Nazio Batuen Erakundeak antolatu zuen Rio-ko Munduko Gailurra (Brasil). Bertan, 178 herrialdeetako gobernuen ordezkariak eta gobernu kanpoko 400 kidek parte hartu zuten. Gainera 17.000 lagun baino gehiagok eztabaidatu zuten Gobernu Kanpoko Erakundearen antolatutako Foroan, besteak beste *Garapen Iraunkorra* kontzeptua argitu nahian.

3. Gailur honen eta Agenda 21 egitasmoaren berri izateko, ikusi bibliografia.

4. Ikusi bibliografia.

rrren arrazoia izan daiteke, alde batetik, iraunkortasunaren adierak berak interpretazio anitzak izatea, eta, bestetik, benetako praxiak paradigma osoaren aldaketa behartzea. Nolanahi ere, bere aplikazioan koherentzia edo iritzi bateratuak izatea oraindik erraza ez den arren, ezinbestekoa da jomugan kontuan izatea.<sup>5</sup>

## XXI. mendean ekologiak ingurumenaren zaintzatik giza garapen ekologiko berrirako jauzia egin du.

Beraz, esaten ari garen bezala, munduko garapena –eta tokian tokikoa– iraunkorra izango bada, kontuan hartu beharko ditu ingurumenaren iraunkortasuna, gizartearena eta garapen ekonomiko orekatuarena.

Horrela, esan daiteke XXI. mendean ekologiak giza garapen eredu berrirako jauzia egin duela XX. mende erdiko ingurumenari loturiko ekologiatik, hau da, ingurumenaren ezagutza eta babestetik giza garapenaren eredu ekologiko berrirako jauzia.

Jauzi hori gertatzen da batez ere, munduaren etorkizuna bera kolokan jarri denez, ekologiak etikoki erantzun behar diolako. Gogoratu behar da, gainera, antzeko arrazoiak daudela nazioarteko garapen-lankidetzaren abiapuntuan ere, hau da, lankidetzaren funtsa munduko krisiei erantzutea dela, batez ere, alderdi sozial eta ekonomikoei dagokienez.

Krisi horiek, labur aipatzeko, honakoak dira:

- **Ingurumenari loturiko krisiak:** bioaniztasunaren galera, klima-aldaketa izateko arriskua, errekurtsio naturalen ustiapen neurrigabea, ingurumenean eragindako itzulerarik gabeko kalte fisikoak, hondakinen kudeaketa desegokia, eta abar. Nolabait esan, luraren muga fisikoek egungo mugarik gabeko garapen-ereduarekin talka egitearen ondorioetatik eratorritakoak... [Ingurumenaren zaintzaz].
- **Ekonomiaren esparruan:** erregai fosiletan oinarrituriko energia-krisia, munduko eta tokian tokiko pobrezia, batez ere muturrekoa, hazkunde ekonomiko mugagabea, eta aberatsen eta txiroen arteko desoreka hazkor eta injustua... [Garapen ekonomikoaz].
- **Gizartearen esparruan:** munduko kultura- eta hizkuntza-galeraren krisi aurrekaririk gabekoa, gizarte sozialen identitate-talka hierarkikoak, kultura- eta hizkuntza-adierazpenak gorde eta garatzeko zailtasuna. Ildo beretik gizakien arteko berdintasun-eza, gizon eta emakumeen arteko ekitatearen printzipioaren gabezia, giza eskubideen errespetuan bizitzeko oztopoak, osasunaren zaintza unibertsala izateko zailtasuna, heziketa-sistema propioa, unibertsala eta tokian tokiko komunitateen beharrei erantzungo diena abian jarri ezina. Honi erantsi dakiok munduko hazkunde demografiko mugagabe eta desorekatuak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko gai ez izatea eta elikadura-ren krisia... [Gizartearen ekitateaz].

Hiru esparru horietan antzematen dira munduko eta tokian tokiko krisi-egoera bezala definitu daitezkeen egoerak; eta dagoeneko erabat onartuta dago, lehenago esan bezala, krisi horien genesia gizakia dela, gizakiak eragindako aurrekaririk gabeko egoerak direla, alegia. Eta onartu da, oso epe laburrean erantzun egokia eman ezean, gizakiaren etorkizuna bera kolokan egongo dela. Arrisku horrek munduko jarduera konpartitua derrigortzen du, non nazioarteko komunitateak erantzun irmo bat planteatu eta eman behar dion. Aldi berean, gizarte zibileko erakundeak eta norbanakoak mobilizatu behar dira, ezinbestean.

5. Gai honen inguruan hausnarketa bereziki interesgarria egiten da *Sustainable Development: From Brundtland to Rio* Nazio Batuentzat John Drexhage eta Deborah Murphy-k idatzitako errebisio dokumentuan.



## 2. Nazioarteko erakundearen irizpideen berri

Garapen iraunkorraren onarpenak nazioarteko lankidetzaren aldaketa garrantzizkoak ekarri ditu, krisien interpretazio berriak txertatuz, eta, batez ere, eragiteko moduan elementu berriak uztartuz. Garapen iraunkorraren kontzeptuak XXI. mendeko lankidetzako lan-ildoan norabidea zorroztzago zehaztu du; esan nahi baita, aurrerantzean, arestian aipatutako hiru zutabeetako edozeinetan planteatzen diren ekimenetan gainerako biak kontuan hartu beharko direla.

Paradigma berriari lerratze ahalegin berezia egiten ari da lankidetzaren, eta, horregatik, bilakaera teoriko zein praktikoa sakon bat bizi izan du azken 30 urteetan. Atal honetan, bilakaera horren berri laburra ematen saiatuko gara, batez ere kultura eta hizkuntzaren gaiari erreparatuz.

Gure helburua iraunkortasunaren bilakaera kontzeptuala zein izan den aurkeztea da, maila instituzionalean eta sozialean. Saiatuko gara, gainera, hartu diren erabaki arrakastatsuek azpimarratzen eta hobetzeko diren hainbat gai proposatzen.

Nazioarteko pentsamenduaren bilakaera hori hainbat adierazpen, hitzarmen eta beste mota batzuetako erabakirekin batera joan da. Erabaki edota proposamen horiei erreferentzi laburra egin nahi diegu hemen helburu soil batekin: nazioarteko lankidetzaren norabidea zuzentzen duen pentsamenduaren nondik norakoa erakustea. Ez da, beraz, azterketa zehatza egingo, ez eta dokumentu horietako bakoitzak zein maila juridikotakoak diren azalduko, edota zein mailatan eskatzen duten betetzeko konpromisoa<sup>6</sup>.

Lankidetzaren azken urteotako pentsamenduaren bilakaera, labur-labur honela bil daiteke:

- Ingurumenaren alderdiari erantzuten dioten politikak modu oso esanguratsuan eta esplizituan garatu dira, giza garapen iraunkorraren arrakasta instituzional zein sozialaren isla izanik.
- Garapen iraunkorraren alderdi ekonomikoek gune zentrala hartu dute.
- Gizartearen ikuspegitik gailendu diren gaiak giza eskubideen esparrua, genero-berdintasuna, heziketa, demokraziaren parte-hartzea edota osasun-esparrutakoak izan dira.
- Gizartearen kultura-dimentsioak, lankidetzaren esparruan urratsak ematen ari den arren, ez du oraindik aurrekoen garrantzia hartu, are gutxiago, hizkuntzaren dimentsioari dagokionez.

Laburbilduz: lankidetzaren esparruan oharitzen gara ingurumenaren zaintzak eta garapen ekonomiko jasagarriak izan dutela maila bateko arrakasta, eta baita alderdi sozialeko hainbat praktika eredu garrik ere esate baterako, genero-ikuspegia esplizituki integratzea, giza eskubideen defentsa, demokrazia sustatu beharra edo ahalmentzearen aldarria errotu baitira lankidetzaren helburuen artean.

Baina, esan bezala, garapen iraunkorraren lursoroan bada oraindik txertatu ez den dimentsioa: komunitateen kulturaren dimentsioari begiratzen badiogu, bereziki hizkuntza propioaren dimentsioari dagokion, gabezia sumatzen dugu. Ohartzen gara berandu baino lehen ekin behar zaiola gaia behar duen arretaz tratatzeari.

Hau da, egiaztatzen da *garapen iraunkorraren hiru zutabeetako konbergentziak dagoen onartzea orokorra izan arren, kontzeptua bera iheskorra gertatzen dela* Drexhage eta Murphy-k aipatzen duten bezala (NBE 2010). Kontzeptu teorikotik aplikazio praktikorako bidea zailagoa gertatzen ari da.

Gure ikuspegitik, ordea, ezin liteke gizarte garapenik erdietsi gizartearen eta herrien dimentsio kulturala alboratuta edo ahaztuta, zehazki, giza taldeen adierazpide eta gordeleku kulturala den hizkuntzaren dimentsioa kontuan hartu, babestu, sustatu eta etorkizuneko iraupena ziurtatuko duen ikuspegiarik gabe. Nekez irudikatzen dugu mundu iraunkor bat egungo munduko kultura- eta hizkuntza-galera masiboaren krisiari aurre egin ezean: ez dugu giza garapen iraunkorrik ulertzen kulturaren eta hizkuntzaren iraunkortasuna bermatu gabe.

---

6. Bilakaera horren berri zehatza izateko kontsulta daiteke Marañak idatzi eta UNESCO Etxeak 2010. urtean argitaraturiko *Kultura eta garapena. Bilakaera eta etorkizuna* lan zehatz eta aipagarria, eta, baita Mantini eta Álvarez-ek urte berean argitaraturiko *Cultura, Ambiente y Cooperación Internacional al Desarrollo*.

Modu oso laburrean aipatzearen, esan daiteke lankidetzaren markoan 1992. (Rioko Mundu Gailurra) eta 2001. urte bitartean ingurumenari loturiko gaiak gailendu zirela nazioarteko pentsamenduan, ondoren, gizarte-gaiei leku propioa egin arte.

Garai horretan onartu ziren esparru desberdinetako adierazpen eta proposamenak, lankidetzeta-arloan oso kontuan hartu beharrekoak. Horien artean daude, besteak beste, kultura-arloak giza garapenean izan behar duen lekuaz aritzen direnak, *Milurtekoko Garapen Helburuak* proiektuaren proposamena, *Hizkuntza eskubideen adierazpena* edo *Herri Indigenen eskubideen aldeko adierazpena*.

## 2.1 Giza garapena eta kultura elkarlotuta

1996ko *Gure Aniztasun Sortzailea. Pérez de Cuellar Txostenak* lotu zituen irmoki giza garapena eta kultura-dimentsioak: kultura-adierazpenerako askatasuna eta aniztasun kulturala babestu eta sustatu behar diren garrantzia agerian jarri zuen, eta, hala egin ezean, gerta daitezkeen ondorioen inguruko alarmak piztu. Marañak aipatzen duenez, “Batordeak ahalegin handia egin zuen politika publikoek kulturaren duten garrantzia azpimarratzeko. ‘Kultura politikak berrikusi’ beharra zegoen.” (Maraña 2010). Zehazki egindako proposamenak honako gaiak bildu zituen: “Etnia eta kultura anitzeko gizarteak kohesionatzeko modu berriak aurkitu behar ditugu, pluralismoa modu berrian eta desberdinean erabiliz: 1) Sormena sustatzeko era berriak. 2) Hedabideak erabiltzeko era berriak, informazio-arraila murrizteko. 3) Genero-ikuspegia erabiltzea. 4) Gazteei ardura handiagoa ematea. 5) Ingurumena kudeatzearen dimentsio kulturala hobeto ulertzea.” (Ibid. 2010)

Lehen aldiz aipatu zuen txostenak, bestalde, giza garapenaren betebeharren baitan ingurumenaren zaintzak izan duen bilakaeraren antzeko ibilbidea egin behar duela kultura-dimentsioak. Hau da, gizakia eta ingurune naturalaren arteko harremana gune biofisikoen terminoetan ulertzeari ikuspegi kulturala txertatu behar zaiola. Ikuspegi horretan oraindik zalantza ugari sortzen dira, batez ere, inpaktuak neurtzeko adierazleak definitzeko zailtasun handiak daudelako (aurrerago zehaztuko dugu gai hau).

Garapen iraunkorra egi  
bihurtu dadin dimentsio  
immateriala barneratu  
behar du;  
kultura-dimentsioa,  
hizkuntza-dimentsioa.

Txostenean, bestalde, hizkuntza-aniztasuna babestu eta sustatu beharra aipatu zen: “Hizkuntza bat desagertzea gure baliabideak agortzea da, landare edo animalia bat iraungitzea bezala. Edozein hizkuntza galtzeak pobretu egiten ditu jakintzaren gordailuak eta kulturen baitan eta kulturen artean komunikatzeko tresnak”.

Paraleloki, jauzi garrantzizkoa izan zen Nazio Batuen Garapenerako Programak lidergoa hartu zuenean garapen eredu berria planteatzerakoan. *Giza Garapenari buruzko txostena* 1990. urtean argitaratu zen lehen aldiz, eta bertan, herrialdeetako garapena ebaluatzeko barne produktu gordina (BPG) erabili ordez, giza garapen adierazleak (GGA) erabiltzea proposatu zen. Adierazle horiek, alderdi ekonomikoen gain gizakiaren ongizaterako funtsezkoak diren beste elementu batzuen inguruan definitu ziren, esate baterako, osasun-arlotakoak, bizi-itxaropena edo gizarte osoaren heziketa-maila. Giza garapenari buruzko txostena urtero argitaratzen da, ia etenik gabe, eta aldiro gai baten inguruko azterketa edo irakurketa berezia egiten du.

Munduko kultura-aniztasunaren gaiari lotuta aipa daiteke gutxiengoaren eskubideen inguruan onartutako deklarazioak eginiko ekarpena. Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisioak 1992. urtean onartu zuen *Izaera nazional, etniko, erlijioso edo hizkuntza gutxiengoaren eskubideen gaineko adierazpena* (*Declaration on the Rights of Persons Belonging to National or Ethnic, Religious and Linguistic Minorities*). Adierazpen horretan, besteak beste, azpimarratuta geratzen da gutxiengoaren kulturaren ezagutzan eta hizkuntza propioan hezteko aldearen identitatea zaintzeko gakoak dela, eta ezinbestean horren aldeko neurriak hartu behar direla.

*Stockholm-eko Kultura Politiken inguruko Gobernu arteko Konferentzian (1998)* ahalegina egin zen nazioarteko lankidetzan kultura-dimentsioa esplizituki integratzeko. Hizkuntzaren integrazioa, ordea, ez da berariaz kontuan hartzen. Hau da, ingurumenaren zaintza eta gizartearen kulturaren arteko harremana berriro azpimarratzen da, hizkuntzari beharrezko erreferentzia egin gabe.

*Kultura-aniztasunari buruzko Munduko Adierazpenean (2001)* onartutako kulturaren definizioaren arabera, bi ikuspegiak bateratu ziren, ekoizpen kulturalari dagokiona eta gizakiak giza taldearekiko eta munduarekiko duen ikuskerari eta antolatzeke moduari dagokiona ere. Honakoa da adierazpen horretan onartu zen kulturaren definizioa: “Kultura gizarte edo giza talde bat ezaugarritzen duten tasun bereizgarri espiritual eta material, intelektual eta afektibo modura ulertu behar da. Gainera, artea eta literaturaz gain, bizitzeko erak, elkarbizitza antolatzeke modua, balioen sistemak, tradizioak eta sinesmenak biltzen dituena da.” Beraz, gizarte eta herrien ekoizpen kulturez gain identitatearen gaia integratzeko bide eman zen, baita hizkuntza propioarena ere.

Bestalde, aipatu behar da *Adierazpenak* egiten duen irakurketa etikoa: “Kultura-aniztasunaren defentsa inperatibo etiko bat da, gizakiaren duintasunaren errespetatzeke banaezina. Giza eskubi-deak eta oinarrizko askatasuna errespetatzea dakar, bereziki pertsona guztiek duten talde gutxiengoen parte izateke eta herri autoktonoetako kide izateke eskubidea errespetatzea”.

2001eko Adierazpena gaurkotasan handiko aitortza da oraindik ere. Bertan agerian jartzen da “iraunkortasunaren kontzeptua orain arte diskurtso ekonomikoetan eta ingurumenezkoetan erabili izan dela. UNESCOk azpimarratu nahi du, kultura-aniztasunaren ikuspegitik, ezin direla banandu garapen iraunkorretik” [...] “Kultura-sistemek banandu ezin diren dimentsio materialak eta immaterialak dituzten modura, garapenak ere dimentsio immateriala barneratzen [duela], eta alderdi hori aitortu eta sustatzea beharrezkoa [dela] garapen iraunkorra egi bihurtu dadin” (UNESCO 2002). Eta era berean “aitortu behar da kultura ez dela garapen ekonomikoari eransten zaion hautazko onura bat, aldiz, betebeharreke baldintza [dela], parte-hartzea ziurtatzeko”.

Ikuspegi hori garatu zen 2005ean Parisen eginiko *Kultura adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioan*. Bertan tradizio eta adierazpen kulturalen babes eta sustapenaz esplizituki hitz egin zen, ondare kultural immaterialaren garrantziaz hitz egiteke, hizkuntza-dimentsioa integratuz eta bere babesa eta sustapena ere aldarrikatuz.

Arreta berezia jarri zitzaion, gainera, kultura-dimentsioa nazioarteko garapen iraunkorra sustatzeko ekimen guztietan integratua izan zedin, babes-mailan zein sustapen-mailan ere. Harrez gero, nazioarteko lankidetzan ikuspegi kulturala eta ingurumenekoa elkar uztarturik joateke beharraz ohartu zen. Izan ere, gizartearen esparruan kulturak duen egitekoa berariaz ezagutu, landu eta sustatu beharreke gaia da. Are gehiago, kultura-ikuspegiak ulertu gabe, nekez interpretatuko dira ongi gainerako bi esparruetakoak; konbentzimendu osoa dugu, Mantini eta Álvarezekin bat eginez, “kultura eta ingurumena txanpon bereke bi alde banaezinak direla” (Mantini eta Álvarez 2010).

Kultura-dimentsioa, beraz, alhora ezin den ezaugarria da; inplementaziorako, ordea, zailtasunak topatzen dira, sarri, kultura adierak interpretazio anitzak eta kontraesankorrak izaten dituelako. Baina baita zailtasunak daudelako lankidetzaproiektuetan, beste hainbat alorretan abian jarritako ebaluazio-sistema bateratua inplementatzeko. Esate baterako, ingurumeneko proiektuen inpaktua neurtzeko adierazleak orokortzen ari diren arren, kulturaren alorrekoak neurtzeko sistema ezartzeko aurrerapausoak txikiak izan dira oraindik, are txikiagoak hizkuntzaren inguruko inpaktua neurtzeko luketen adierazleen kasuan.

*Konbentzioaren* ondoren, aipagarria da *Herri Indigenen Eskubideen inguruko Nazio Batuetako Adierazpena (2007)*. Deklarazio hori arreta bereziarekin begiratu eta zaindu beharke litzatekeen aitortza dela uste dugu, bereziki lankidetzan lanean ari diren erakunde guztien aldetik. Nazioarteko lankidetzarako ekimenetan kontuan hartu beharreke aldarrikapena da, zalantzarik gabe; batez ere, ikusirik azken urteetan aurrera eramaten diren proiektu gehienak herri indigenetako gunetan egiten direla. Esate baterako, gogoangarriak dira *Adierazpen horren* ondorengo artikulua

“13. Artikulua. 1. Herri indigenek etorkizuneko belaunaldiei euren istorioak, hizkuntzak, ahozko tradizioak, filosofiak, idazketa-sistemak eta literaturak biziberritzeko, erabiltzeko, sustatzeko eta transmititzeko eskubidea dute, baita euren komunitate, toki eta pertsonen izenak eman eta gordetzeko ere.

14. Artikulua. 1. Herri indigenek euren hizkuntzatan eta ikaste-modu propioarekin bat datorren kulturaren baitan hezteko euren instituzioak sortu eta kontrolatzeko eskubidea dute. [...]
16. Artikulua. Herri indigenek eskubidea dute euren hizkuntzatan arituko diren komunikazio-bide propioak sortzeko eta gainerako komunikabideetako sarrera diskriminaziorik gabe izateko.”

Esan dezagun atal hau amaitzeko, Mantini eta Álvarezek aipatzen duten bezala, *argi geratzen dela ingurumenaren ikuspegia gailendu dela, nazioarteko kooperazio-egitasmoetan zehar lerroa sendotu dela, baina kultura-dimentsioa oraindik bere lekua hartzeko dagoela, garapen iraunkorra ziurtatzeko ezinbesteko baldintza modura* (Mantini eta Álvarez 2010). Gure aldetik, konstatazioa egin nahi dugu hizkuntzaren ikuspegiak are ibilbide luzeagoa duela aurrean, egin beharreko bidaia horretan.

### Kultura- eta garapen-adierazleak

Lehenago aipatu dugu kultura-irizpidea txertatzeko nazioarteko lankidetzak dituen zailtasunen artean eragina neurtzeko adierazleak ezartzeko oztopoak daudela. Hala ere, aipagarria da abian jarri dela helburu hori erdiesteko UNESCOren saiakera bat. 2009an hasi zen erakunde hori adierazle horien definizio-lanetan, eta 2011. urtean *Kultura- eta garapen-adierazleak* proiektuaren marko analitikoaren definitu zuen. Gaur egun, esperimentazio-fasean dagoen arren, interesgarria da gure proposamen honi dagokionez egitasmoak zein esparru biltzen dituen ikustea.

Bere *marko analitikoak* adierazten duenez, helburua da garapenean kulturak duen balioa neurtzeko adierazle neurgarriak definitzea, jakitea, alegia, kulturak nola lagun diezaiekeen gizartearen aldaketa-prozesuei garapen-interbentzioak egiten direnean. Marko analitikoan egitasmoa hiru lerrotan banatu da: 1) kultura jarduera ekonomiko bezala, 2) kulturak garapen interbentzioetan izan dezakeen balio erantsia eta haren eragina handitzeko, ahalmentzeko gaitasunaren arabera, eta 3) kultura marko iraunkor modura giza kohesioa, bakea eta giza garapena lortzeko bide bezala.

Egin beharraren zailtasuna onartzen du ekimenak. Adierazle-sistemak, esate baterako, *Giza Garapen Adierazleak*, oso emankorrak izan dira hezkuntza-arloan, osasun-esparruan eta beste batzuetan. Kulturaren kasuan, ordea, arazoak sortu dira kultura-arloko gaiak neurtzeko orduan, eta, beraz, ahal-egin berezia egin beharra aitortzen du. UNESCOren proposamen honetan 20 adierazle aukeratu dira zazpi azpi-sektoretan banatuta: 1) ekonomia, 2) hezkuntza, 3) kultura-ondasuna, 4) komunikazioa, 5) gobernantza, 6) gizartea eta 7) genero-ekitate.

Kulturaren adierazle-sistema hori oraindik testatzen ari den ekimena da, eta egileek, eurek ere, ez dute behin betiko proposamen bezala aurkezten. Alta, garapen estrategietan kultura-dimentsioa integratzeko lehen pausu modura aurkezten dute. Nolanahi ere, ikus daitekeen bezala, hizkuntzaren inguruko aipamen zehatzik ez da egiten bertan. Guk, ordea, uste osoa dugu kultura-gaian eragiten duen edozein neurketak kontuan izan beharko lukeela hizkuntzaren gaia.

---

Garapenerako lankidetzari dagokionez, beraz, krisiei erantzuteko kultura-dimentsioa proiektuak diseinatu eta aurrera eramatea garrantzizkoa da. Baina, horrez gain, ezinbestekoa da dimentsio hori proiektu guztietan txertatzea. Gainera, ez da hori nahikoa, gure iritziz, paradigmaren aldaketa eskatzen delako, iraunkortasunaren kulturara jauzi egitea, alegia. Hori da, hain zuzen aipatzen ari garen UNESCOren *Adierazpenak* eta Mantini eta Álvarezek planteatzen duten ideia bera (Mantini eta Álvarez 2010). Iraunkortasunaren hiru dimentsioak (ingurumenaren zaintza, garapen ekonomikoa eta gizarte-ekitiboak) banan bana integratzeaz gain, iraunkortasunaren kultura lankidetzeta-esparru guztietan txertatzea da helburua.

Beraz, gure ustetan, garapen-lankidetzak iraunkortasunarekin bat egiterakoan gizakia eta gizartearen alderik esanguratsuen den kultura eta ingurumena elkartu beharko lituzke, eta horrela diseina-

tu proiektuak, tokian tokiko errealitate eta gizartearen parte-hartzea ziurtatuz eta bertako beharrei erantzuteko helburuarekin. Beraz, ezinbestekoa da kulturaren ikuspegi argi eta tinkoa izatea, adierazpen kulturaletan oinarritua, tokian tokiko hizkuntza-egoerak arretaz begiratuta, tradiziozko ezagutza kontuan hartuta, eta adierazpen artistikoak baztertu gabe. Horregatik, tokian tokiko egoera linguistikoa kontuan hartuta, kultura- eta hizkuntza-dimentsioa nazioarteko lankidetzaren ekimen guztiak integratzen hastea ezinbesteko ikusten dugu.

## 2.2 Milurtekoko Garapen Helburuak

Munduko giza krisiei aurre egin nahian proposatu ziren *Milurtekoko Garapen Helburuak* Nazio Batuen Erakundeak 2000. urtean eginiko Batzarrean. Dokumentu honen eginkizunetik harago doa funtsezko ekimen hori sakon aztertzea, baina garrantzi berezia du helburu horiek hemen aipatzeak. Izan ere, garapen iraunkorraren definizioan berez zehaztu zen arren, praxian garapen ekonomikoa eta ekitate sozialaren perspektibak estuago uztartu zitzaizkion ordura arte gailentzen zen ingurumenaren zaintzaren ikuspegiari.

Gainera, helburuok nazioarteko garapen-lankidetzaren oinarri teoriko zein praktikarako irizpideen erdigunea hartu dute harez gerotik. Azken urteetan ez dago lankidetzari buruzko dokumentu bat *Milurtekoko Garapen Helburuei* erreferentzia egingo ez dionik. Proposamen honetan defendituko dugu, gainera, *Milurtekoko Garapen Helburuak* lortzeko herrien kulturaren dimentsioa, eta, zehazki, tokian tokiko hizkuntzaren irizpidea kontuan hartzea ezinbestekoa dela, eta baita horren arabera proiektuen diseinuak eta ekimenak egitea.

*Milurtekoko Garapen Helburuak* lortzeko epe-muga 2015. urtean jarrita dago. Gaur egun, betebeharrak hori erdiesteko dauden zailtasunak egonik ere, nazioarteko komunitatea ari da 2015aren ondorengo eszenatokia prestatzeko lanetan (2015+). Are gehiago, iraunkortasunaren<sup>7</sup> kontzeptu garatuago bat ere lantzen hasiak dira. Halere, zailtasunak zailtasun, indarrean jarraitzen dute garapen-lankidetzazuzentzen duten nazioarteko zein bertako erakundeen irizpideetan.

Honakoak dira Milurtekoko Garapen Helburuak:

1. Pobrezia gorria eta gosea errotik murriztea;
2. Lehen hezkuntza unibertsala erdiestea;
3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatzea;
4. Haurren heriotza-tasa apaltzea;
5. Amen osasuna hobetzea;
6. GIB/HIESAri, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea;
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea;
8. Garapenerako munduko itun bat sustatzea.

*Milurtekoko Garapen Helburuak* ekimenak egin bezala, nazioarteko garapen-lankidetzaren munduko gizartearen arteko desoreka neurrigabean eta injustuan eragiteko antolatuta zen. Bere eginkizuna herrien arteko elkartasunaren sustapenean errotu zen pobrezia aurre egiteko; ardura politiko eta ekonomikoa, gizateriaren oinarriko betebeharrak eta giza eskubideen defentsa unibertsala bermatzeko lagungarri izan nahian, Mantini eta Álvarezek bere lan aipagarrian adierazten duten bezala (Mantini, Álvarez 2010).

---

7. Iraunkortasunaren kontzeptua bera zalantzan jartzerainoko eztabaida ere plazaratzen ari da garaiotan. Gai horren inguruan ikus Marcellesi 2012.

## 2.3 Hizkuntza-eskubideaz

Hizkuntza guztien defentsan asko dira lanean ari diren nazioarteko erakundeak, unibertsitateko adituak edo bestelako ikerlariak zein gizarte eragileak. Hemen bereziki aipatu nahi genuke Bartzelonan 1996an bildutako Konferentziak onartu zuen *Hizkuntza eskubideen adierazpen unibertsala*.

Konferentzia horretan 90 estatu baino gehiagoko gizarte zibileko 200 lagun inguru bildu ziren helburu batekin: 1948. urtean onartutako Giza Eskubideen Adierazpenaren garapen zehatz modura gizakien eta komunitateen hizkuntza-eskubideak aitortuak izateko urratsak ematea. Konferentzia horretan elkartu zirenen artean norbanakoak, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetako ordezkariak, hizkuntza-gaietako ekintzaileak edota hizkuntza-eskubidearen arloan aritutakoak zeuden. Bere bokazioa, nolana ere, gobernu arteko erakundeetan eragitea izan zen, ahalik eta azkarren adierazpen horrek bere lekua har zezan.

Adierazpenak interes gorena du bere testu osoan, baita *Atariko Tituluan* ere. Artikulazioa, printzipio orokorrak ezarri ondoren, honako esparruetan banatzen da: Administrazio publikoa eta organo ofizialak, hezkuntza, onomastika, komunikabide eta teknologia berriak, kultura, eta alor sozioekonomikoa. Hemen, hala ere, honako artikulua ekarri nahi ditugu eskura, lankidetzeta-esparruan arreta bereziarekin zaindu beharrekoak direlakoan:

[...] 3. Artikulua.

1. Deklarazio honek eskubide pertsonal besterenezintzat eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat dauzka honako hauek:

I. Hizkuntza-komunitate bateko kideetat ezagutua izateko eskubidea. [...], V. Kultura propioa mantendu eta garatzeko eskubidea

2. Deklarazio honek kontsideratzen du ezen hizkuntza-taldearen eskubide kolektiboak, haien kideentzat [izateaz gain ...] ondoko hauentzat zabal daitezkeela:

I. Hizkuntza eta kultura propioaren irakaskuntza izateko eskubidea; II. Zerbitzu kulturalak edukitzeko eskubidea; III. Taldearen hizkuntzak eta kulturak komunikabideetan presentzia ekitatiboa izan dezaten eskubidea ..

[...] 5. Artikulua. Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntza-komunitate guztien eskubideak berdinak diren [...]

[...] 23. Artikulua.

1. Hezkuntzak lagundu egin behar du ematen den lurraldeko hizkuntza-komunitatearen auto-adierazpen linguistiko eta kulturalaren gaitasuna indartzen. 2. Hezkuntzak lagundu behar dio ematen den lurraldeko hizkuntza-komunitateak hitz egiten duen mintzairaren euste eta garapenari.

[...] 41. artikulua.

1. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntza- eta kultura-adierazpen guztiak erabiltzeko, sostengatzeko eta bultzatzeko.

Hizkuntza Eskubideen Adierazpena gizarte zibileko ekimena izanik, onartu behar da oraindik orain oztipoak aurkitzen dituela gobernu arteko erakundeek onar dezaten, nahiz eta bere abiapuntutik bazuen hizkuntza-eskubideen aldeko defentsan erakunde horien eragiteko borondatea.

### 3. Hizkuntza kulturaren eta identitatearen adierazpena, hizkuntza-ekologiatik begiratuta

Hizkuntzak gizartean txertatzen du gizakia, taldearen parte egiten du, denboran eta espazioan kokatzen, gaur eta hemen, historian eta munduan. Hizkuntzak izatearen eta nortasunaren kontzientzia ematen dio gizakiari, iraganaren kontzientzia eta etorkizuneko proiektzioa... eta baita jolasa, gozamenaren, plazera, artea ...

Hizkuntzak, gainera, gizakien arteko harremanak bideratzen eta markatzen ditu, izandakoari eta izango denaren arteko zubi egiten; tradizioa eta aldaketa konbinatuz irautea eta egokitzea ziurtatuz, arbasoen jatorrizko ezagutza seme-alabei igarotzea bermatuz. Hizkuntza orok!

Hiztunek elkarren artean eta naturarekin dituzten harreman ekologikoak dira ezagutu eta zaindu behar direnak. Hizkuntzetan gordetzen dira gizakiek, gizarteek, hiztun-komunitateek denboran zehar sortu eta bildutako ezagutza. Naturaren ezaugarri aldakorrei egokitzeko eta moldatzeko gaitasuna erakutsi dute, ezagutzaren bitartez irauteko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Hizkuntza bakoitzak bere erara!

Hiztunen eguneroko bizitzan, gainera, hizkuntzek funtzio desberdinak betetzen dituzte: taldeko harremanetan, familian, belaunaldien artean, gizartearen antolamenduan, arlo ekonomikoan... komunikazio funtzioa betetzen dute. Baina badira beste batzuk ere, esate baterako, ikuspegi simbolikoa hartzen dutenak, adibidez sinesmen arloan, espiritualtasunean, arte adierazpideetan, tradiziozko ezagutzan, naturaren ulertze-moduan, eta abar. Esango genuke hiztunaren eta hiztun-komunitatearen identitatearen eta kulturaren adierazpen nagusienetakoa dela hizkuntza. Hiztun bakoitzarentzat bere hizkuntza-errekiko harreman identitarioa!

Hizkuntza ezer gutxi da gizakirik gabe, hiztunik gabe. Baina gizakia are txikiagoa egiten da bere hizkuntzarik gabe. Nolanahi ere hizkuntza-komunitatean osatzen dute bere izaera.

#### 3.1 Hizkuntza-ekologia

Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen harremanak begiratzeko eta zaintzeko modu bat da. Hizkuntzaren ingurua eta ekosistema hiztun-komunitatea da. Oinarrian, hizkuntza guztien balio unibertsalaren defentsan, aniztasunaren zaintzan, berdintasunaren balio etikoan eta elkartasunaren printzipioan oinarritzen da.

Bere helburua datozen belaunaldien hizkuntza-beharrak asetzeko, tokian tokiko hizkuntzak baliagarriak izan daitezen ziurtatzea da, horretarako gaur egun hartu behar diren neurriak abian jarriz. Giza-kiaren garapen iraunkorra hizkuntzaren garapenarekin doa, hizkuntza-ekologiarekin batera.

Hizkuntza-aniztasunaren babesa hizkuntza-ekologiarentzat garrantzizkoa da, iraunkortasunarentzat bioaniztasunaren babesa garrantzizkoa den bezala. *Kultura-aniztasunaren adierazpenaren* lehen artikuluan bertan aipatzen da "gizakiarentzat kultura-aniztasunak izaki bizidunentzat aniztasun biologikoak bezainbesteko garrantzia duela". Parekotasun hori egin nahi dugu, bi gaiak elkarloturik daudela aldarrikatzen dugulako. Ez da ahaztu behar bioaniztasuna eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna inguruneari egokitzeko gaitasun historikoaren emaitzak direla. Ez da harritzekoa, eta horretan ari dira lanean ikertzaile asko<sup>8</sup>, aniztasun biologiko handiena dagoen munduko eremuetan, kultura- eta hizkuntza-aniztasun oso handia egotea.

Adibidez, Maffik (2005) eta bere taldeak egindako ikerketaren ondotik, aniztasun biokulturalaren ideia plazaratzen ari da<sup>9</sup>, landare aniztasun handieneko luraren eremuetan baitago kultura- eta hizkuntza-aniztasun handiena.

8. Alor honetan oso garrantzizkoak dira, esate baterako, Luisa Maffiren lanak.

9. Gai honetan sakontzeko ikus Luisa Maffi 2005eko lana.

Gaur egun, ikertzaile askok frogatu dute dibertsitate linguistikoa aurrekaririk gabeko krisian dagoela. Munduko beste krisiekin alderatzeko modukoa, zalantzarik gabe. Hizkuntza galtzearen inguruko lehenera-rik alarmak hizkuntza-ekologia definitu beharra ekarri zuen. Hain zuzen, Haugen-ek 1972an proposatu zuen adiera hori hizkuntzen galeraren aurrean erantzun beharragatik. Harrez gero, asko dira ikerlartzaileak gai honen inguruan lanean ari direnak, bai ikerketa mailan eta baita sentiberatze-lanetan ere<sup>10</sup>.

Nazioarteko gobernu arteko erakundean artean UNESCO ari da hizkuntzen galeraren aurrean senti-beratze-lan garrantzizkoa egiten. Berak argitaratzen duen *Arriskupeko Hizkuntzen Munduko Atlas*<sup>11</sup>, esaterako, erreferentziazko informazio-iturri da hizkuntzen egoera ezagutzeko. Bertan zehazten da “erantzunik ematen ez bada, hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen erdia galduko dela mende honen amaiera baino lehen. Dokumentatu gabeko hizkuntzak galtzen direnean gizateriak kultura-ondarea galtzen du, eta baita arbasoek metatutako garrantziko ezagutza, batez ere talde indigenen artean”.

Bioaniztasunaren galera baina handiagoa da proportzionalki, mundu-mailan gertatzen ari den hizkuntza-galera masiboa.

Galera horren tamainaren irudia *Atlas* horietako mapetan ikus daiteke, hizkuntzen arrisku-maila bakoitza ikur desberdinekin adierazita.<sup>12</sup>

Hizkuntzen galtze-prozesua ez da berezkoa; gainerako krisi ekologikoen antzera gizakiaren eraginez gertaturiko mundu mailako krisia da. Izan ere, hizkuntzak ez dira berez hiltzen; aitzitik, hiztunek sozialki indartsuagoak diren beste hizkuntza(k) ikasten d(it)uztenean euren hitz egiteari utziz, jartzen da hizkuntza arriskupean<sup>13</sup>. Jakina, jokaera horiek ez dira norbanakoaren aukera librearen ondorio soilez gertatzen.

Aldiz, parte hartzen duten beste eragile asko eta asko hizkuntza nagusietako sistemek eragindakoak dira. Norbanakoek eta, batez ere, hizkuntza-komunitateek euren hizkuntza hitz egiteari uzteko arrazoiak, sarri, hizkuntzen hierarkizazioan eta hiztun-komunitateen botere harreman desorekatuetan oinarritutako jokabideen ondorioz gertatzen dira. Aldaketa hori, gainera, gutxienetan gertatzen da komunitateen kalte inportanteak eragin gabe. Aldiz, dokumentatuta dago komunitateen hizkuntza galtzeak, sarri, bestelako kalteak ere eragiten dituela.

Bioaniztasunaren galera baina handiagoa da proportzionalki mundu-mailan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa. Eta oraindik ez dira nazioarteko erakundeak eta gizarte zibila krisi horren garrantziaz behar adina jabetu. Horregatik, hemen, ohartarazi nahi dugu nazioarteko garapenerako lankidetzak baduela bere eginkizuna krisi honen aurrean erantzuteko. Eginkizuna eta erantzukizuna esango dugu. Aurrerago aipatuko dugun bezala, bere jardura egiten den eremu gehienetan (guztietan ez bada) hizkuntzen arteko harreman hierarkiko horien ondorioz, hizkuntza galtzeko arrisku bizian daude. Beraz, lankidetzeta-esparruan, arreta bereziarekin begiratu eta zaindu beharrekoa da gaia.

Beraz, iraunkortasunaren definizioarekin bat eginez, hizkuntzaren ekologiak egungo mundu mailako hizkuntza-krisiari tamaina bereko erantzuna ematea aldarrikatzen du. Eta baita komunitate mailakoa ere. Izan ere, hizkuntzak bere testuinguruan, beren ekosistemetan, beren komunitateen ulertu behar dira; eta norbanakoaren mailan, ekologiak egiten duen antzera, hizkuntza-praktika ekologikoak hedatzea sustatu.

### 3.2 Bizitasun etnolingüistikoaz

Hizkuntza-ekologiak hizkuntza bere testuinguruan aztertzen eta artatzen du, hizkuntzak gizartearen sortzen dituen harreman ekosistemikoak zainduz; gizakien erabileran bizi da, hiztun-taldeen adie-

10. Arlo honetan ikerlariak kontaezinak dira. Aipa ditzagun nolana ere gutxienez aitzindari diren Kraus, Brenzinger, Würm, Maffi, Grimes edo Calvet bezalako ikerlariak. Gure inguruan Martí eta bestek egindako lana aipagarria da, baita Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UNESCO Katedra ere.

11. UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger.

12. UNESCO: *Atlas UNESCO de las lenguas en peligro*. <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/es/atlasmap.html>

13. Ez ditugu hemen hondamendi naturalen ondorioz gertaturiko hizkuntza-komunitateen desagerepenak ahanzi nahi.



razpideetan. Eta hori guztia hizkuntzaren bizitasun etnolinguistikoaren<sup>14</sup> sendotasunean islatzen da. Zenbat eta bizitasun handiagoa, orduan eta aukera handiagoa izango du hizkuntza horrek iraunkorra izateko, datozen belaunaldiei erabilgarria izan dadin transmititzeko.

Dokumentu honetatik harago doa bizitasun etnolinguistikoaren azalpen zehatzak ematea, baina, ezinbestekoa deritzogu, nolani ere, definizio guztien artean bat behintzat proposatzea. Eta kasu honetan UNESCOk egindako proposamenean oinarrituko gara horretarako.<sup>15</sup>

Erakunde horren definizioaren arabera, hizkuntza batek iraun dezan kontuan hartu beharreko aldagaiak honakoak dira nagusiki, 1) hiztun-kopurua 2) hiztun-kopurua populazio osoaren proportzioan 3) hizkuntza hori belaunaldi batetik bestera transmititzen den 4) hezkuntza-sisteman erabiltzeko materialak 5) hizkuntzaren erabilera publikoa, 6) dokumentazioaren kalitatea, 7) hiztunen jarrerak hizkuntzarekiko, 8) gobernuaren hizkuntzarekiko jarrera eta politika, 9) teknologia berrien aurreko jarrera<sup>16</sup>.

Ikuspegi ekologikotik helburua hizkuntza-aniztasunaren babesa eta sustapena da; hizkuntza bakoitzaren babesean eta sustapenean oinarrituta, jakina. Zaintza eta babes hori, ordea, tokian tokiko egoera bakoitzaren diagnosiaren gainean begiratu eta zaindu behar da. Diagnosi hori egiteko, hain zuzen, oso baliagarria izan daiteke aipaturiko bizitasun etnolinguistiko aztertze modua.

Behin diagnosa egin eta kontuan hartu eta gero, lankidetzeta-jarduera zaintza horren eragile izan daiteke, hizkuntza-praktika ekologikoak sustatuz. Lankidetzeta hori bi alderdietatik abiatuta egin daiteke:

- a) hizkuntza biziberritzeko berriazko proiektuak diseinatu eta garatuz, eta
- b) gainerako esparruetako proiektuetan egiten diren jardueretan ziurtatuz, ahalik eta eragin linguistiko positiboena izan dezaten.

Hizkuntza-ekologiak hizkuntza guztien garapena eta iraunkortasuna ziurtatu nahi du; hizkuntza-komunitate guztien berdintasunaren printzipioaren izenean, hizkuntzen balioa sendotu; galtzeko arriskuan dauden hizkuntza-komunitateetan haien autoestimua hobetzen lagundu. Izan ere, garapen iraunkorrak garapena ukatzen ez duen bezala<sup>17</sup>, hizkuntza-iraunkortasunak eleaniztasunaren onurak onartzen ditu, gizakien arteko elkar ulertzea errazteko.

Alabaina, nola lortu hizkuntza-aniztasun iraunkorra? Helburu nagusia da, Bastardas-ek definitzen duen bezala, elebidun edo eleanitz diren hiztunek hizkuntza txikiaren funtzio oinarritzkoak ez saihestea edo galtzea eguneroko bizitzan, hau da, *tokian tokiko hizkuntza "txikiak" bete ditzakeen funtzioak ez ditzala hizkuntza globalago batek hartu* (Bastardas 2005). Horretarako, kasu bakoitzean interbenzio desberdinak irudikatu beharko dira eta hor dago lan handiena.

Garapen-lankidetzari dagokionez, beraz, arreta eta ardua bereziarekin jokatu behar delako ideia zabaldu nahi dugu. Lankidetzeta-proiektuen bitartez harreman desorekatu horren ondorioetan eragin nahi izaten da. Hizkuntzen galera-arriskuaren jatorria hiztun-komunitate desberdinen arteko diferentzia ekonomiko, sozial, politiko eta kulturetan oinarrituriko arrazoiak izan ohi dira. Gehienetan, gainerako desberdintasunen iturri antzekoak.. Garrantzizkoa da hizkuntzaren dimentsioarekin ere inpaktua positiboa izatea. Horregatik, tokian tokiko proiektuetan arreta eta kontu bereziarekin aritzea ezinbestekoa da. Kasu honetan, Iñurategiren irizpidearekin bat egiten dugu, esaterakoan, *garapenerako lankidetzeta-proiektua definitzerakoan, haren fase guztietan modu sistematikoan kontuan hartzea komeni dela* (Iñurategi 2013).

---

14. Bizitasun etnolinguistikoaren eredia Giles, Bourthis eta Taylor-ek 1977. urtean argitaratu zuten. Harrez gero, bilakaera desberdinak izan ditu adierak. Honako honetan UNESCOk erabiltzen duen moldaketa proposatuko dugu garapen-lankidetzako esparruan oso erabilgarria izan daitekeelakoan.

15. UNESCOren Arriskupeko hizkuntzak webgunea, bizitasun linguistikoaren atala: <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality/>

16. Unescok proposatzen duen bizitasun etnolinguistikoaren arabera hizkuntza galtzeko arriskuak zehatz-mehatz aztertze, ikus daiteke baita ere UNESCOrentzat 2003an Aditu-taldeak idatzirik txostena

17. Gai honen inguruan zalantzak badira nolani ere. Ikus horren inguruan, esate baterako, Drexahage eta Murphy-ren txostena (United Nations, 2012)

### 3.3 Milurtekoko Garapen Helburuak erdiesteko hizkuntza-gaiak. UNESCO Bangkok-eko proposamena

Atal honetan, nazioarteko lankidetzari dagokion ikuspegitik arreta berezia jarriko diogu *Milurtekoko Garapen Helburuak* hartu duen lekuari. Izan ere, *helburuak* integratu dira gutxienez inguruko erakunde nagusien lankidetzeta-plangintza ia guztietan. , Mugak agerian jarri dituzten hainbat erakunderen ekimenetan ere gertatu da txertatze hori. Hau da, helburuak lortzea zailtasunez beteriko bidea den arren, eta helburuak lortuz gero ere agertoki berriak ekitatetik urrun legokeen mundua irudikatuko lukeen arren, zalantza gutxi dago alboratu ezinezko saiakera dela.

2010ean burutu zen Bangkok-en Hizkuntzari, Hezkuntzari eta Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko Nazioarteko Konferentzia, eta bertan landutako gaiak oinarri hartuta, hango UNESCOren bulegoak argitaratu zuen orain aipatuko dugun *Zergatik erabili hizkuntza-gaiak Milurtekoko Garapen Helburuak erdiesteko* dokumentua (*Why Languages Matters for the Millenium Development Goal*).

Lankidetzeta-esparruan Bangkok-eko ekarpenari oso interesgarria deritzogu. Izan ere, gure proposamenaren oinarria finkatzeko laguntza ezin hobea izan da. Dokumentua zehatzago aztertuko dugu, iruditzen baitzaigu garapen-lankidetzako plangintza eta ekimen guztiek kontuan hartzeko moduko irizpideak eskaintzen dituela.

Dokumentuaren hitzaurrean bertan, garapen-lankidetzaren praktika bideratzeko baliagarria izan daitekeen lehen ideia nagusia planteatzen da:

“Konbentzimendu osoa dugu hizkuntza kontuan hartzea Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko ezinbesteko baldintza dela. [...] Izan ere, hizkuntza integrazioaren giltzarria da, gizakia- ren jardueraren gunea, norberaren adierazpide eta identitatea. Jendeak hizkuntza propioari ematen dion lehenetsunezko lekua aitortuz, hizkuntza propioa erabiliz, garapenean benetako parte-hartzea sustatu nahi da, interbentzioko emaitzak iraunkorrak izan daitezten.”

Dokumentuak Milurtekoko Helburu bakoitza banan bana aztertzen du, honako irizpideak eta adierazpenak eskainiz:

#### 1. helburua: POBREZIA GORRIA ETA GOSEA ERROTIK MURRIZTEA

Helburuaren definizioarekin batera egoeraren berri ematen du dokumentuak: “Munduko populazioaren laurdena muturreko txirotasunean bizi da”, baina kontuan hartu behar da “hizkuntza gutxitua hitz egiten duten talde etniko gutxituek munduko txiro eta baztertuen artean, proportzionalki, dago-kiena baino leku handiagoa hartzen dutela”. Talde horietan egiten diren jardueretan, prozesu egokiak burutu ezean, “gutxiengoak are eta atzerago gelditzeko arriskuan egongo dira”.

Hizkuntza eta kultura galtzeak dakartzan arriskuen inguruan kontzientzia hartu beharra azpimarratu behar da, batez ere, lankidetzeta-arloan lan egiten dutenen artean. Honela dio dokumentuak:

“Hizkuntzak, oro har, ez dira txirotasuna murrizteko nazioarteko dokumentu eta plangintzetan agertzen esplizituki oraindik. Beraz, horrek adierazten du gutxiengo etniko eta linguistikoei arreta ez-nahikoa eskaintzen zaiela, bereziki euren garapen prozesuei dagokienez.”

Izan ere, hizkuntza eta kultura galtzeak, sarri, gizakia-engan eta gizarte-engan kalteak sortzen ditu, esate baterako, txirotasuna, osasun-arazoak, droga-menpekotasunak, familiako indarkeria eta suizidioak.” Aldiz, sarritan, hizkuntzari gune zentrala ematen dioten garapenerako ekimenek oso emaitza onak erdiesten dituzte.

#### 2. helburua. LEHEN HEZKUNTZA UNIBERTSALA ERDIESTE

Txostenaren egileekin bat gatz adierazterakoan “heziketa txirotasunetik irteteko bide garrantzikoena dela; arreta berezia jarri behar dela haurren lehen hezkuntzan, izan ere, eskolako maila txikienetan kalitatezko heziketa izatea premiazkoa baita helduaroan aukera hobekoak izateko”.

Milurtekoko helburuak lortzea planteatu zenetik gaur arte, lehen hezkuntza unibertsala lortzeko nahian hainbat aurrerapauso garrantziko eman dira, baina “gutxiengo etnolinguistikoen artean,

bereziki neskei dagokienez, heziketa egokia izateko helburua askoz urrutirago dago”. Jakina da, gainera, “haurren hizkuntza eta kultura propioak kontuan hartzen ez dituzten hezkuntza-sistemek asko zailtzen dutela ikasleek ikasketa-prozesua jarrai dezaten.” Gutxiengo etnolinguistikoei dagokienez honela dio txostenak:

“Hizkuntza propioa kontuan ez hartzeak gutxiengo etnolinguistikoko haurrei bazterketa eta diskriminazioa betekotzea ekartzen die. [...] Euren hizkuntzan oinarritutako heziketak, aldiz, haurrei laguntzen die, esate baterako, euren auto-konfiantza hobetzen. Horrela hobeto ikasten dute, baita ondoren beste hizkuntzak ikasteko ere. Gainera, bestelako eskola-gaietan ere egokiago moldatzeko aukera izaten dute, eskola-porrota gutxitzeko eta familia-giroan babesa eta laguntza izateko.”

Gainera, kontuan hartu behar da, hizkuntza propioa hezkuntzan ez integratzeak bestelako ondorioak ere ekartzen dituela. Esate baterako, arrazoi horregatik populazio zati handi bat hezkuntza egokitik urrun dagoen herrialdeetan garapen ekonomikoa atzeratu egiten da, eta gatazka politikoak indartu daitezke.

### **3. helburua. GENEROEN ARTEKO BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN BOTERE-HARTZEA SUSTATZEA**

Txostenak dioenez “emakumeek eta neskek numerikoki dagokiena baino proportzio handiagoa hartzen dute munduko baztertuen artean; baztertuen artean baztertuenak dira. Garapen-bidean dauden herrialdeetan eskolatu gabe dauden nesken kopurua guztien bi herena da, eta horietako proportzio oso altua gutxiengo etnolinguistikoen artekoa da”. Alabaina, hainbat ikerketek erakutsi dute emakumeak eta neskek milurtekoko garapen-helburuetan aurrera egiteko estrategikoak direla. Emakumeei euren errekurtsoen kontrola eta erabakiak hartzeko gaitasuna izateak prozesu kateatuak askatzeko gaitasuna ematen die, bai familian eta baita etxean ere.

Baina ahalmentzea lortzeko, “emakumeak eta neskek euren hizkuntzatan hezte oso garrantzizkoa da”. Nesken kasuan, hizkuntza propioan ikasten dutenean, eskola-gaiak hobeto lantzen dituzte, auto-konfiantza garatzen dute, eskola-porrota izateko edota ikastaroak errepikatzeo aukerak gutxitzen zaizkie. Emakume helduen kasuan, bestalde, euren hizkuntzatan alfabetatzen direnean, egoera ekonomikoa hobetzen dute, euren etxeetan eta komunitateetan erabakiak hartzeko ahalmena eta seme-alabak heztekoko aukera ere hobekien izaten dituzte.

Bestalde, informazioaren esparruan eurak eta euren alabak genero-biolentzia gutxitzeko baliagarria dela ere frogatu izan da, komunikazioa hizkuntza propioan egiten bada.

### **4. helburua. HAURREN HERIOTZA-TASA APALTZEA; eta 5. helburua: AMEN OSASUNA HOBETZEA**

Dokumentuaren arabera, 10,5 milioi haur eta erditzerakoan 500.000 emakumetik gora hiltzen da urtero. Heriotza horietako gehienak saihestu daitezkeen arrazoi oron ondorioz gertatzen dira; asko sendatu daitezkeen gaixotasunen ondorioz, eta haurdunaldi- eta erditze-garaiko zaintzaren gabeziagatik. Baina “bizitza asko salba daitezke baldin eta emakumeek informazio egokia jasotzen badute, adibidez, elikaduraz edota edoskitzeaz, edota osasun-arloan diarrea eta malaria bezalako gaitzak ekiditeko moduz. Horregatik, emakumeek euren hizkuntzatan eta testuinguru kulturala kontuan hartuta jaso behar dute informazioa, eraginkorra izateko.”

Dokumentuan arreta berezia jartzen zaio osasuneko langileek tokian tokiko hizkuntzaz izan beharko luketen ezagutzaz, izan ere, “osasun-arloan espresuki gaixoak euren hizkuntzan artatuak izateak garrantzi handia du, sarri ez baitute hizkuntza nagusia ezagutzen” eta beraz, komunikaziorik gabe zaila da konfiantza-girorik sortzea, osasun-zaintzarako jokabide egokiak izan ditzaten. Gainera, azpimarratu behar da gutxiengo etnolinguistikoen kasuan are eta kontu handiagoa izan behar dela gai honen inguruan.

### **6. helburua. GIB/HIESARI, PALUDISMOARI ETA BESTE GAIXOTASUN BATZUEI AURRE EGITEA**

Aurreko helburuak lortzeko, esan bezala, Hiesari eta beste gaixotasunei aurre egiteko hizkuntza propioak duen garrantzia azaleratzen du dokumentuak, kasu honetan

ikuspegi kulturala are delikatuagoa den egoeretan. Honela azaltzen da gaia txostenean:

“Gutxiengo etnolinguistikoetako pertsonak bereziki zaugarriak dira Hies, malaria edo beste gaixotasunen aurrean, batez ere, ez dutelako jasotzen beharrezkoa den informazioa euren hizkuntzatan, euren testuinguru kulturaletan edota euren konfiantzako pertsonengandik. Hau bereziki garrantzikoa da osasunaren esparruan, hor gertatzen diren jokamoldeak - baita harreman pertsonaletakoak edota hautu sozialen esparrukoak ere- kulturalki baldintzatu daudelako. Horrela egin ezean, gaixotasunokin batera etorri ohi den bazterketa areagotu egin daiteke.”

Gaixotasun horien inguruko ekimenetan, beraz, tokian tokiko hizkuntza ez erabiltzeak jardueraren emaitza baldintzatu dezake zuzen-zuzenean. Ez da ahaztu behar osasun-arloko ekimenetan mezua argia eta zehatza izan behar dela, erraz ulertu behar dela, nori zuzenduta dagoen kontuan izanda eta, batez ere, tokian tokiko kultura eta hizkuntzan emanikoa. Horrela egin ezean, ekimena arrotza izango da hartzailearentzat, eta norberaren ohiturak eta jokabide sustraituak aldatzea ezinezkoa izango da. Hau da, mezua bideratzen duena kanpokotzat hautematen bada, nahi ez diren emaitzak jasotzeko arriskua handituko da. Aldiz, euren hizkuntzatan hitz egin eta entzunez gero, bide egokiak topatuko dira osasun-esparruko mezuak igortzeko, eta komunitateko kide guztiak, emakumeek eta neskatok barne, mezua jasotzen dutela ziurtatzeko.

#### 7. helburua. INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA BERMATzea

Garapen iraunkorraren kontzeptuak erakutsi duenez, ingurumena eta gizartearen elkarlotuta daude. Ingurumenaren babesak eta garapen iraunkorrak talde guztiak parte-hartzea eskatzen dute, batez ere, gutxiengo etnolinguistikoena. Kontuan izan behar da, gainera, gutxiengo etnolinguistikoaren bizi-raupena eta etorkizuna ekosistema osasuntsuetan oinarritzen dela. Beraz, lotura hori are eta zuhurtzia handiagoarekin begiratu beharko da.

Badakigu, bestalde, gutxiengo etnolinguistikoaren etorkizuna eta euren hizkuntzarena elkarlotuta daudela; nekeza izango dela, hizkuntza galduz gero, talde bezala irautea, alegia. Beraz, garapena eta hizkuntza uztarturik egonda, “hizkuntzek berebiziko garrantzia hartzen dute tokian tokiko garapen prozesuak arrakastatsuak izan daitezen”. Gainera, ekimenak burutzeko parte-hartze prozesuak ezinbestekoak direnez, gogora ekarri behar da parte-hartze hori nola gertatzen den:

“Garapen iraunkorreko parte-hartze prozesua jendeak hasten du, euren hizkuntzatan eta kultura propioaren testuinguruan eztabaidatzean, euren egitura sozial eta komunitateko propioak baliatuz”.

Beraz, testuinguru honetan ere, ezinbestekoa izango da bertako hizkuntza eta kultura propioak errespetatu eta sustatzea.

#### 8. helburua. GARAPENERAKO MUNDUKO ITUN BAT SUSTATzea

Garapen iraunkorraren inguruan mundu-mailako ituna lortzea planetaren etorkizuna ziurtatzeko baldintza dela esango genuke, kontuan hartuta egungo mundu-mailako aurrekaririk gabeko krisi ekologiko eta sozialari aurre egiteko tresna modura planteatu zela. Ituna erdiesteko, ordea, komunikazio-modu berriek berebiziko lekua hartu dute gizarteak eta erakundeak elkarlotzeko. Nolanahi ere, ez da nahikoa talde guztiak aukera birtuala izatea. Garrantzikoa da gutxiengo guztiak informazio- eta komunikazio-teknologietarako sarrera dutela ziurtatzea. Horretarako, tokian tokiko hizkuntzetan aritzen diren materialak eta softwareak garatu eta ekoitzi daitezela suspertzea aholkatzen du txostenak.

Atal honen abiapuntuan aipatu bezala, arretaz irakurtzeko moduko proposamena dela uste dugu Bangkokekoa, bereziki, nazioarteko garapen-lankidetzako plangintzetan zein jardueretan ari diren erakundeen aldetik.

## 4. Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2013-2016<sup>18</sup>

Nazioarteko Garapen-lankidetzarako Espainiako Agentziak<sup>19</sup> argitara emandako 2013-2016ko Plan Zuzendariak finkatzen ditu epe horretarako nazioarteko lankidetzeta gidatzeko irizpideak.

*Milurtekoko Garapen Helburuak* lortzen laguntzeko premia kokatzen da irizpideen erdigunean. Helburuak erdiesteko jarritako epea (2015. urtea) plana indarrean dagoen bitartean ixten da, eta beraz, bitarte horretan jarduerak helburu horiekin lerratzat definitzen dira, neurri handi batean. Konpromiso horrekin bat eginez, 2015aren ondorengo agertokia (2015+) prestatzeko agentzia aktiboa izan nahi du epe horretatik harago, nazioarteko beste erakunde askorekin batera.

Plan Zuzendariak definitzen duenez, helburua lankidetzaren jarduera guztien erdigunean gizakia jartzeko da; giza garapeneraren subjektuak, liderak eta protagonistak garapen-prozesuan murgiltzen direnak baitira, tokian tokikoak. Gainera, lehenetsuz, txirotasuna gutxitzeko eta eskubide guztiak bermatzeko lagungarri izan nahi du, eta era berean, gizakien gaitasunak handitu nahi ditu askatasunez erabakitzeko aukera izateko, helburuak lortzea ahalbidetzeko eta munduko garapen iraunkorra lortzeko aktiboki parte izateko.

Helburu horiek lortzeko, alabaina, dimentsio desberdinetan antolatzen ditu jarduerak *Planak*, esate baterako, ahalmentzea sustatuz, giza eskubideak babestuz, generoaren ikuspegia garatuz, garapen iraunkorra ziurtatuz, ikuspegi inklusiboa aplikatuz, eta abar.

Kultura-aniztasunaren garrantzia planean berriazko foku modura izan ez arren, 2013-2016 bitarteko Lankidetzarako orientabideetarako garapen-hezkuntzaren esparruan zehaztu da. "Kalitatezkoa, doakoa, eta inklusiboa izateko, eskolak kultura-aniztasuna arretaz begiratu behar du", eta baita hizkuntza-aniztasuna, erantsi nahi genuke gure aldetik, lehenago aipatu den bezala.

Bestalde, 2005eko UNESCOren *Kultura adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko konbentzioaren* aholkuak eta ideiak bere egiten ditu planak, eta aitortzen du "kultura-aniztasunak gizakiaren ahalmenak handitzen dituela eta giza balioak eta aukerak elikatzen dituela". Beraz, aintzat hartzen da "lankidetzak kultura-aniztasunaren errespetua, kultura arteko elkarrizketa eta adierazpen- eta sormen-askatasuna sustatu" behar dituela, eta baita bizitza kulturean pertsona guztien parte-hartzea.

Kultura-dimentsioa integratzeko irizpide eta proposamen oso interesgarriak ematen dituzte Mantini eta Álvarez-ek kultura, ingurumena eta garapen-lankidetzeta elkarloturik aurkezteko eginiko txostenetan<sup>20</sup>. Hau da, kultura-dimentsioa giza garapen iraunkorra lortzeko alderdi nabarmena dela aitortuz, egindako bereizketa horrek adierazten du oinarritzko pentsamenduan oso sendo integratu dela garapen iraunkorraren pentsamendua, alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak integratu nahi baitira. Nolanahi ere, berebiziko garrantzia du kulturaren dimentsioa gizartearen bereizgarri banaezina denez, bertan integratzen hasteak, eta zehazki, hizkuntzaren dimentsioa, bai berriazko garapen proiektuak diseinatzeko orduan, eta baita zehar lerro modura gainerako esparruetan txertatzeko ere.

---

18. Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo - AECID 2012: Plan Director de la Cooperación Española 2013-2016

19. Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo-AECID

20. Lehen ere aipatu den Mantini eta Álvarez-ek sinatutako *Cultura, Ambiente y Cooperación Internacional al Desarrollo. Líneas estratégicas de acción cultural en materia ambiental* bereziki interesgarria da kultura-dimentsioa garapen-lankidetzan integratzeko. Oso kontuan hartzeko moduko proposamena izanik ere, hizkuntzaren irizpide espezialekin osatu beharko litzatekeela uste dugu.

## 5. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Garapen-lankidetzako irizpideak

Lehen aipatu dugu nazioarteko ikuspegian garapen iraunkorraren kontzeptua oso hedatua dagoela gu-xtienez maila teorikoan. Gure inguruko plangintza publikoetan ere hala gertatzen da, baita lankidetzatza-esparrukoetan ere. Alabaina, oraindik nekez ikusten ditugu hiru dimentsioak praktikan. Alderdi horretan, uste genezakeena baino arreta txikiagoa jarri zaio gizartearen kultura-arloari; balirudi alboko ezaugarritzat hartzen dela. Eta zer esanik ez hizkuntzarenari, oso alboratuta agertzen baitzaigu, agertzen den leku apurretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Herri Administrazioak nazioarteko garapenerako lankidetzatza gobernatzeko gaur egun dituen irizpideak biltzen dituzten dokumentu nagusiak begiratuko ditugu atal honetan. Soil-soilik kontuan hartu ditugu gaur egun Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta bertako Lurralde Historikoen mailan erabilgarri daudenak. Ez dugu, beraz, udalerrietako irizpideen berri zuzen eta zehatza emango, nahiz eta gai honen inguruan berrikuntza eta ekimen oso interesgarriak abiatzen ari diren azken denborotan; izan ere, proposamen hau bera prestatzen ari garen bitartean hainbat udalerrri eta udalerrri-elkartetan gaiaren inguruko hausnarketa eta ekimen zehatzen berri jasotzen ari gara. Alderdi horretatik, beraz, bideari helduko zaionaren konfiantza hartzen ari gara. Nolanahi ere, hemen, begirada laburra emango diegu Nafarroako Gobernuan, Eusko Jaurlaritzan eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietan indarrean dauden dokumentu gidariei.

### 5.1 Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Garapen-Lankidetzarako Gida. Plan Estrategikoa

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzatza-jarduera zuzentzeko 2008-2011ko *Garapen-lankidetzarako Gida. Plan Estrategikoa* dago indarrean. Planak giza garapen iraunkorraren eredu garapen-lankidetzaren jardueraren erdigunean finkatzen du; lehentasun politiko modura definitzen du sarreran bertan. Nazioarteko ikuspegitik garrantzi zentrala ematen dio definitzerakoan, “gaur egungo egoeren aurrean ez dela nahikoa erantzun partzialak ematea, baizik eta arrazoiatar jo behar dela” aldarrikatzean. Aldi berean, Milurtekoko Garapen Helburuek ere erdigunean kokatzen ditu, bertan ezarritako konpromisoak nabarmendu behar direla bereziki aitortuz.

Planak nazioarteko lankidetzak dituen betebeharrez egiten duen irakurketa oso interesgarria da, aipaturiko garapen iraunkor konprometituan izan behar duen funtzioa lehenesten baitu. Bertan, nazioarteko jarduera-esparruetako gaiak aipatzerakoan honakoak nabarmentzen dira:

- 1 Herritartasun unibertsala eta subiranotasun konpartitua ardatz izatea.
- 2 Mundu osorako erakunde demokratiko bat sortzea, eremu globalean eskumen eta gaitasun definituak dituen.
- 3 Giza garapen iraunkorrari lehentasun politikoa ematea.
- 4 Agendaren edukiak garapen iraunkorraren alderdi guztiak hartu behar ditu barnean, modu integralean: a) eredu ekonomikoa eta kontsumo-jarraibideak, b) giza eskubideak, c) ondasun publiko globalak, d) zorra, e) genero-berdintasuna, f) migrazioak, g) kultura-aniztasuna, h) garapen-lankidetzatza.

Garapen iraunkorra euskarri hartuta, helburu orokor bat zehazten du nazioarteko garapen-lankidetzarako. Honakoa da helburu orokor hori: “Identitate eraldatzailea, koherentea, koordinatua eta kalitatezkoa izango duen lankidetzatza-politika garatzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta”.

Helburu hori erdiesteko sei eremu sektorial definitzen ditu: 1) lehentasunezko gizarte-premiak, 2) herri-ekonomia, 3) tokiko boterea, 4) giza eskubideak, 5) kultura-identitate, eta 6) emakumeak ahalduntzea. Eta, aldi berean, ekimen guztiak integratu eta landu behar dituzten lau zehar lerro: 1) tokiko gaitasunak, partaidetzatza eta antolakuntza, 2) genero-berdintasuna, 3) giza eskubideak, 4) jasangarritasun ekologikoa.

Ohartzen gara, beraz, garapen iraunkorraren kontzeptuaren baitan kultura-dimentsioa berariaz garatzeko asmoa badagoela planaren baitan, horretarako definituriko eremu sektorialen artean zehaztuta baitago. Zehar-lerroak begiratzuz ikus daiteke, gainera, ingurumenaren gaiak eta garapen ekonomikozozialak kontuan hartu direla. Alabaina, ohartzen gara gizartearen esparruan kokatzen den kultura-dimentsioaren ikuspegia eransteko dagoela. Gure iritziz, zeharkako lerroetan berariaz txertatzea garrantzizkoa litzateke, gainerako jarduera guztiak ere baldintzatzen dituelako.

Zehatzago begiratzuz, planaren lehentasunezko ildo horien azalpenetan kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzearen gaia integratuta ikusten dugu, kultura-identitatearen esparruan. Azpimarratzekoa da planak ekonomia-esparrua eta kulturaren arteko lotura esplizituki egitea, biltzen dituen bi ikuspegi-tik gainera: “gaur egun ekonomia eta kultura aurrez aurre jartzen dituzten funtsezko arazoak identifikatu daitezke: lehenik, gizarte-orekaren eta garapenaren iraunkortasunaren arazoa; bigarrenik, kultura-aniztasuna babestearen kontua”. Aipamen berezia egiten zaio bestalde, herri indigenetan dagoen kultura-aberastasunari eskaini beharreko arretari. Laburbilduz esan dezagun, gure ikuspegi-tik, garapena eta kulturaren arteko loturaz egiten den planteamendua oso egokia dela, honela definitzen duen: “garapena eta kultura bi termino banaezinak badira, eta garapena kulturen indartzaila baino gehiago ez bada, herrien kultura oinarriak ondo sendotu behar dira, giza garapen iraunkorrek inbenentan koherenteak diren estrategiak ezartze aldera”. Haatik, arreta berezia jarri behar da, besteak beste, “kultura anitzeko eta hizkuntza anitzeko hezkuntzan”.

Esan daiteke, beraz, planaren baitan badagoela garapen iraunkorraren inguruko kontzeptualizazio aipagarria. Bereziki, herrien ikuspegi-tik kulturaren bi dimentsioak barne hartzen dituen (munduko ikuskera eta kultura-ekoizpena). Aipagarria da, aldi berean, herri indigenen kasuan emandako trataera berezian kulturak hartzen duen garrantzia. Horrek guztiak errazten du planteatzen ari garen oharra egitea. Gure iritziz, marko teorikoan zehaztu beharko litzateke hizkuntzaren ikuspegia, bertan esplizituki txertatzeko, bai eremu sektorial modura eta baita zehar-lerroetan ere. Kultura-aniztasunaren defentsak hizkuntza-aniztasunaren defentsa exijitzen duelako konbentzimendu osoa dugu, erabateko zehar-lerroa izan beharko lukeela, edozein garapen ekimenetan barneratu beharrekoa. Zaila da ulertzea inolako ekimenik (izan parte-hartze modukoa, genero-berdintasunaren aldekoa, edo iraunkortasun ekologikoari buruzkoa) tokian tokiko kultura eta hizkuntza propioa kontuan izan gabe. Beraz, gure aldarria da interbentzio-sektore izateaz gain, sektore guztiak *blaituko* dituen zehar-lerro bezala ere definitzea.

## 5.2 Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiaren garapen-lankidetzaren jarduera hiru Foru Aldundiek 2009-2011rako egintzako planaren jarraipenean txertatzen da, eta gaur egun indarrean dagoen irizpide-emaile nagusia da. Planaren erronka nagusien artean kokatzen dira txirotasuna eta desnutrizioa gainditzea, ingurumenaren zaintza, justizia globala lortzea eta kontzientzia kritikoa sustatzeko ahalegina egitea.

Helburu orokorra “lankidetzak koordinatua eta kalitatezkoa eginez txirotasunaren aurka borrokatzea da, genero-ikuspegia kontuan izanda eta kontzientzia kritikoa sustatzeko”.

Hegoaldeko herri eta komunitateei dagokienez, helburu orokorra berariazko hauek zehazten da: “Milurteko Garapenerako Helburuak txertatzea bultzatu eta erraztea [...] jatorrizko herrien berezko nortasuna aintzat hartzea jardueretarako, eta genero-ekitatearen jabetze estrategikoa”.

Planaren jardueraren hiru ardatzak, kasu honetan ere honakoak dira: 1) tokian tokiko giza garapena, 2) genero-ikuspegia, eta 3) garapenerako hezkuntza.

Plan honetan arreta berezia jartzen zaio 2000. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako Milurteko Garapen Helburuak lortzeko lagungarri izateari. Bestalde, 2005eko *Parisko adierazpena* eta

2008ko *Akkra*ko *adierazpena* bere eginez azpimarratu nahi du, laguntzari buruzko ideia tradizionala gaindituz, garapen-lankidetzeta eskubideak onartzeko eta justizia helburuak lortzeko lan gisa ulertu behar dela, burutuko diren ekintzek ondorio eraginkor eta iraunkorrak izan ditzaten.

Planak deklaratzeko duen bezala, giza garapenaren kontzeptuak berak iraunkortasuneko konpromisoa eskatzen du, “egungo belaunaldien premiak eta ongizatea asetzeko etorkizunekoek kolokan jar ez ditzan”.

Beraz, iraunkortasunaren pentsamendua erabat integratuta ikus daitezke planaren baitan. Lehenago esan modura, iruditzen zaigu, halere, kultura eta hizkuntza propioaren gaia berariaz lantzeko modua egin beharko litzatekeela.

### 5.3 Bizkaiko Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea, 2013 -2015. Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Plan Zuzentzaileak Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) sustatutako Giza garapenerako ereduari erreferentzia zuzena egiten dio aurkezpeneko nazioarteko kokapenean. Eredu horretan desberdintasunei aurre egiteko heziketak, generoaren arteko ekitateak eta ingurumenaren zaintzak duten garrantzia azpimarratzen da. Era berean, munduko garapen-agendan lankidetzeta-esparruak duen egitekoa gogoratzen du “pobrezia eta desnutrizioa gainditzeko, desberdintasunak ezabatzeko, ingurumena zaintzeko, kontzientzia kritikoa sortzeko eta bakearen kultura erakitzeko”.

Testuinguru horretan, lankidetzaren helburu nagusia honela definitzen du planak: “garapenerako politika koordinatua eta kalitatekoa garatzea, pobrezia aurkako borroka, genero-zuzentasunaren sustapena eta gizarte-kontzientzia kritikoa eraldatzailea sortzea. Helburu nagusi hori, alabaina, honako helburu partzialetan gauzatzen da: Milurtekoko Garapen Helburuen ezarpena bultzatu eta erraztea [...]; Hegoaldeko jatorrizko herrien berezko nortasuna kontuan hartzea [...]; Genero-zuzentasunaren jabetze estrategikoa kontuan hartzea [...]; Gure ekimenek ingurumenean izan dezaketen eragina kontuan hartzea eta behar diren baliabideak jartzea haiek iraunkortasunarekin bateragarriak izan daitezen”.

Lankidetzeta sustatzeko ardatzetan berariazko lekua izan beharko luke hizkuntza propioaren zaintzak eta babesak.

Beraz, lankidetzaren ikusmoldea behin definituta, Plan Zuzentzaileak bere jarduerak honako ardatzetan zentratu ditu: 1) tokiko giza garapena, 2) genero-zuzentasuna, 3) garapenerako hezkuntza.

Interesgarria da ardatz horietan planak arreta non jarzen duen ikustea. Adibidez, lehen ardatzean (tokian tokiko garapena) protagonismoa ematen die *Milurtekoko Adierazpenaren* ondorioz onartutako helburuei.

Gainera, ikuspegi integral batetik azpimarratzen da “herrien kultura gizartearen egitate integrala [dela] agian, [...]. Tokiko giza garapenaren ikuspegiarentzat kulturaren dimentsioa oinarritzakoa [dela], eta edozein esku-hartze planteatu aurretik hura hartzen [dela] aintzat, kultura-aniztasunaren eta kulturen arteko elkarrizketaren premisetatik abiatuta, garapen-prozesuetako alderdi nagusi gisa”.

Hirugarren ardatzean ere (garapenerako hezkuntza), kultura arteko dimentsioa oso kontuan hartu da. Honela dio planak: “Kultura arteko dimentsioa da garapenerako hezkuntzaren beste osagai bat. [...] Toki ingurunean ez ezik, dimentsio horrek garrantzi berezia hartzen du garapenerako lankidetzako ekintzen kasuan. Ekintza zein kultur ingurunean burutu behar den zaintzea funtsezkoa da abian jarritako prozesuen desbideratzeak, inposizioak edo kudeaketa ezegokia saihesteko. Dimentsio honetan funtsezkoak dira toki-eragileen parte-hartzea, protagonismoa eta lidergoia lankidetzako ekintzetan”.

Ardatz honetan jarduteko orientabideetan azpimarratzen da “Kultura-aniztasuna kontuan hartzen duen azterketa eta planteamendua eranstea, inguruneari egokitu zaizkion eta lankide diren gizartearen premia eta interesei erantzungo dieten ekintzak proposatzeko. Bermatu egin behar da sekula ere ez dela formulatutako proposamen eurozentrikorik edo tokian tokiko kultura-ereduak desitxuratu dituenik”.



Beraz, esan daiteke leku esplizitua ematen zaiola tokian tokiko kulturaren alderdia aintzat hartzeari. Nolanahi ere, lankidetzaren sustatzeko ardatzetan, berariazko lekua izan beharko lukeela uste dugu kultura-dimentsioak eta, esplizituki, hizkuntza propioaren zaintzak eta babesak, are gehiago garapenerako hezkuntza-arloan aritzeko orduan. Laburbilduz, planak egiten duen bidea osatuz, interesgarria litzateke bere proposamenetik abiatuta, tokian tokiko kulturaren esparrua ezagutzeko, errespetatzeko eta sustatzeko lan-ildo moduan integratzea, bertan hizkuntza-dimentsioa berariaz landuz.

#### 5.4 Garapenerako Lankidetzaren Foru Plana 2013-2016. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Lankidetzaren esparrua neurri handi batean zuzenduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu berri duen Foru Planak. Dokumentuaren sarreran aipatzen denez, helburua “nazioarteko garapenerako lankidetzapolitika sendotzea da; nortasun eraldatzailea duen politika, giza garapen iraunkorra sustatzen duena, bazterkeriaren arrazoiak ezabatzen dituena, eta eraldaketa subjektuei laguntzen diena”. Beraz, dokumentu honi dagokionean interesa du azpimarratzeak giza garapen iraunkorra sustatzea duela helburu.

Alabaina, kontzeptuaren hiru dimentsioen inguruko informazio zehatza ematea egokia litzateke dokumentuan bertan. Hau da, garapen iraunkorraren ingurumenaren dimentsioa, dimentsio ekonomikoa eta gizartearen dimentsioari aipamen espliziturik egitea argigarria izan daitekeela uste dugu, esparru hirukoitz hori bereizezina delako giza garapena bere osotasunean ulertzeko, eta horrek ahalbidetzen duelako, gainera, sakoneko aldaketari buruzko planteamenduak egitea; oso lagungarria izango litzateke aipatzen diren “munduko krisi sistemiko eta dimentsioaniztunei” aurre egiteko.

Planaren jarduteko esparruei dagokienez, bere printzipio gidariak aipatu behar dira: “elkartasuna, jabetzea eta laguntza, sakontasuna, kalitatea eta gardentasuna, eta koordinazioa”. Printzipio horiek gidari hartuta, bestalde, lankidetzaren arloak honela zehaztu dira: garapenerako lankidetzaren eta gizarte-erlaketarako hezkuntza. Azkenik, zehar-lerro modura egindako bereizketa honakoa da: genero-ikuspegia, tokiko gaitasunen eta partaidetzaren ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia.

Planaren arabera, bere helburua “pertsonen eta herrien askatasunak, gaitasunak eta aukerak handitzea da; pobrezia kausetara orientatzea, eta eraldaketa-subjektuak eta dituzten garapen-alternatibak sendotzen laguntzea”. Aldi berean, ikuspegi kritikoa batetik abiatuta ere, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko ahalegina egin behar denaren ideia ere hedatzen du. Ikuspegi txalogarria iruditzen zaigu, oro har. Akaso, ordea, garapen iraunkorraren alderdi garrantzizkoenarekin osatu beharra ikusten dugu. Ohartzen gara, planak ez duela garapen iraunkorrerako kulturak eta hizkuntzek duten balioa identifikatzen. Inplizituki ulertu daitekeen arren, esplizituki egitea ezinbestekoa ikusten dugu, baldin eta seriozki ulertu nahi bada nazioarteko garapen-lankidetzak iraunkortasunarekin duen eginbeharra eta ardura. Bestalde, oso lagungarria izango delakoan gaude, baita gizarte-erlaketarako sustraian eragiteko ere, babesa emateko eta ahalmentze-prozesuetan eraginkorrak izateko.

Horregatik, helburuetan bertan, kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna babestu, sustatu eta nabarmenduko duen nazioarteko lankidetzaren ereduak esplizituki definitzea komenigarria litzatekeela iruditzen zaigu, eta baita lan-ildo espezifikoa zein zehar-lerroetan ere.

#### 5.5 Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen (GGEK) jardueren linguistikoak eta gizarte zibilaren eginkizuna

Atal honetan lekua egin nahi diegu EAEko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE), ikusteko euren jardueretan tokian tokiko kulturaren eta hizkuntzaren gaia nola lantzen duten. Ez dugu azterketa edota behaketa zehatza egiteko aukerarik izan gure kabuz, eta ikuspegi orokorra eskaintzeko Iñurategi<sup>21</sup> buruturiko ikerketa interesgarria baliatuko dugu. Aipatutako ikerketa 2005ean

21. Eskerrak eman nahi dizkiogu Iñigo Iñurategiri, argitaratu gabe duen lan interesgarri hau egin, eta gure esku jarri duelako.

egindakoa den arren, uste osoa dugu bere emaitzak gaur egun oraindik baliagarriak direla. Hala ere, urte hauetan gertatu diren aldaketak kontuan hartuta, hizkuntza-gaia eta herrien identitatea arretaz hartuz lanean ari diren erakundeen jarduera aitortu nahi dugu hemen, bidearen abiapuntuan aitzin-dariak izan daitezkeelako.

Ohar hori eginda, beraz, lan honetan irudi orokorrari begiratuko diogu, soilik, esan bezala. Inurrategik GGK-ko hainbat erakunderi eginiko inkesta batean oinarritu du bere lana. Ikerketa horretan nabarmendu den ideia oso ondo laburbil daiteke parte hartu duen kide baten esanetan: “Guretzat hizkuntza eta prozesu identitarioak garapenerako lankidetzan gauza berriak dira, eta ez ditugu landu orain arte konturatu ere ez garelako egin lantzeko beharrik zegoenik ere”. Iruditzen zaigu hori dela orain arte errealtatearen ispilu zuzenena. Hori eta erakundeen lehentasunen artean ez egotea gaia, izan horiek erakunde ekintzaileak zein finantzatzaileak. Gure aldetik erantsi nahi genioki horri beste mota-tako arrazoiak ere badaudela sumatzen dugula, batez ere, zailtasunak antzematen ditugu praktika linguistiko ordezkatzailearen inguruan sentiberak izateko.

Ikerketak emandako ondorio esanguratsuenak azpimarratuko ditugu ondoren, gaur egungo egoera-n ispilu direlakoan eta proposamen zehatzak egin nahi genituzkeelako. Inurrategiren ikerketaren emaitzak, beraz, honakoak dira:

- “1. Oro har GGKEen jardueretan proiektuak definitu aurretik, hizkuntzaren eta identitatearen inguruko aldagaiak ez dira kontuan hartzen.
2. Kulturartekotasunaren eta identitatearen gaia lantzen dutela diote, hizkuntza-eskubideen gaineko aldarrikapena egiten dutela. Ez da, hala ere, hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen dinamikak ulertzeko eta beraingan eragiteko oinarritzko sentsibilizazio-lan berezirik egiten.
3. Hizkuntza eta prozesu identitarioak garapenerako lankidetzan gauza berriak izanik, landu beharraren kontzientziarik ez dute izan.
4. Lankidetzeta-proiektuetan genero-ikuspegia oso barneratuta dagoen arren, hizkuntza oso ezezaguna da. Beraz, ez da ezartzen, erakunde horietan ez delako lehentasunezko gaia.
5. Gainera, proiektuen finantzatzaileek horrelako zehaztasunik jartzen ez dutenez, arreta ere txikiagoa jartzen zaio gaiari.”

Badaude, beraz, maila desberdinetan ikus daitezkeen hobetu beharreko jarrerak. Alde batetik, tokian tokiko kultura eta hizkuntzaren errealtatearen ezagutzaren arloan informazio zuzena eskaini beharko litzateke GGK-ko erakundeei; bestalde, errealtate hori ulertzeko behar diren tresna egokiak eskaintzea interesgarri litzateke, kulturaren eta hizkuntzaren ordezkatze-prozesuetan harreman ekologikoen beharretan lehentasunezko prozesuak ulertzeko (horretarako gutxieneko soziolinguistika-ezagutzak

ezinbestekoak direla uste dugu). Modu horretan, ziur gaude eragileen sentiberatasuna asko sendotuko litzatekeela, eta praktika linguistiko egokiak izateko aukera indartuko. Azkenik, Garapenerako Gobernu-z Kanpoko Erakundeen jarduerak diruz laguntzen dituzten Herri Administrazioiko Erakundeek bere eskakizunetan integratu beharko litzateke irizpide horiek, aintzat hartuak izan daitezzen. Hori guztia aurrean duguna guztien artean heldu beharreko erronka partekatua dela sinetsita gaudelako.

Ildo horretan, Inurrategik proposamen interesgarria egiten du hizkuntza-dimentsioa lankidetzeta-esparruan integratzeko bidean. Bere esanetan “beste dimentsio

Genero-ikuspegiak izan duen bilakaera ezagututa, antzeko bidea proposatu beharko genuke hizkuntzaren irizpidea uztartzen hasteko.

batzuek garapen-lankidetzan izan duten bilakaera aprobetxatu beharko litzateke nortasunaren eta hizkuntzaren irizpidea uztartzen hasteko, batez ere, genero-ikuspegiak izan duen bilakaeraren berri izan eta antzekoa proposatzeko”. Gure aldetik, erantsi nahi dugu, ingurumenaren zaintzak izan duen bilakaera ere eredu oso egokia izan daitekeela helburu hori erdiesteko. Kontuan izan behar da aztertutako plan guztietan bi dimentsioak modu berezitan garatzen direla, jarduera esparru espezifiko modura, eta zehar-lerroetan esparru guztietan kontuan hartzen direla, izan EAEko erakundeei dago-

kienean eta baita nazioarteko pentsamendu orokorraren baitan. Gure ikuspegitik, beraz, iraunkortasunaren pentsamenduaren baitan desberdintasunei aurre egiteko, hizkuntzaren dimentsioak berriazko tratamendua beharko luke izan, jakina, besteren artean.

Esate baterako, aipa dezagun generoaren ikuspegia lantzeko mundu-mailako gizarte-eragileek –zehazki eragile feministek– izan duten eragin erabakigarria, eta ingurumenaren zaintzarako munduko gizarte-mugimendu ekologistek izan dutena. Zergatik ez pentsatu kultura- eta hizkuntza-esparruko gizarte-mugimenduari ere bere eginkizuna aitortu eta erantzun behar zaiola?

Generoaren ikuspegitik, helburu nagusi konpartitua emakumeenganako mendekotasunari aurre egitea den bezala, hizkuntza-komunitateen arteko hierarkizazio injustuengan eragitea izango da dimentsio hau ezartzearen helburua, komunitateen autoestimua hobetu eta tokian tokiko hizkuntzen higatze-prozesuei talka jartzea, alegia. Gainera, arreta berezia jarri beharko zaio lankidetzeta-proiektuetan eragin negatiborik ez izateko; izan ere, oro har, eta salbuespenak salbuespen, hizkuntza sozialki eta ekonomikoki indartsuago baten praktikarekin burutzen dira lankidetzeta-jarduera horiek. Beraz, ondorio kaltegarriak ez sortzeko, hau da, tokian tokiko hizkuntzaren higatze-prozesu horietan are higatzaileago ez izateko, sentiberatasun handiarekin jokatu beharko da.

Pentsamenduaren aldaketa honetan hurbilketa aipagarria iruditzen zaigu Bakeaz erakundeak 2012an eginiko *Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoa*<sup>22</sup>. Iruditzen zaigu proposatzen ari garen planteamenduetarako ekarpen oso interesgarriak egiten dituela. Gidaren esanetan, krisi ekologikoari aurre egitea da helburu nagusia, “espezifikoki, iraunkortasuna garapenerako lankidetzan sartzeko aukera sistematizatu eta praktikan gauzatzeko”. Gida horrek ingurumenaren zaintza eta genero-ikuspegia uztartzeko iradokizun zehatzak eskaintzen ditu. Horixe da, baita ere, gure ikuspegia. Eta hortik abiatuta hizkuntza-irizpideak uztartzeari ekitea proposatuko genuke.

Pentsamendu honen aldeko norabide-aldaketa ezinbestekoa dela deritzogu. Halere, aipatzen ari garen beste bi dimentsioetan gertatu den bezala, bere denbora beharko da bai erakunde publiko zein gobernu kanpoko erakundeak horren jabe izan daitezen. Nolanahi ere, gaur egungo gizarte globalizatuaren abantaila bat ere profitatu beharko litzateke, hau da, pentsamenduaren, informazioaren eta ekimeneen inguruko berriak inoiz baino abiadura handiagoan izatearen alde ona, hain zuzen. Abantaila berberarekin txertatzen joan daitezke ikuspegi berriak, baldin eta sentiberatze-lanak txukun egiten badira.

## 5.6 Nafarroako Lankidetzarako II Plan Zuzendaria 2011-2014

Nafarroako Lankidetzarako II Plan Zuzendaria 2011-2014 dago indarrean gaur egun. Zazpi ataletan antolatuta, dokumentu honetan, soilik, bigarrenari eta hirugarrenari egingo diogu erreferentzia, horietan aurkezten baitira bere printzipio zuzendariak eta egitura. Atal horietan, berebiziko garrantzia hartzen dute helburu orokorrak eta jarduera-esparru estrategikoen atalak.

Planaren arabera esan daiteke Nafarroako lankidetzeta-politika munduko pobrezia ezabatzeko nazioarteko kontsentsuan eta giza garapenaren sustapenean oinarritzen dela. Bi helburu horiek zehazten ditu, hain zuzen ere, Milurtekoko Garapen Helburuak biltzen dituen Deklarazioak, eta baita Nazioarteko Garapenerako Agendak. Aipagarria da Planak aitortzen duela planteamendu horrek “ez dituela giza garapenaren dimentsio guztiak biltzen”. Baina, hala ere, nazioarteko komunitatearentzat ibilbide-orri garrantzizkoa dela ikusiz, bere ildo nagusiekin bat egiten du, ikusi dugunez, dokumentu honetan aztertutako plan guztiek egiten duten modura.

Printzipio zuzendarien artean arretaz begiratu beharrekoa da genero-ekitatea eta giza garapen iraunkorra sustengatzen duten ideiak eta pobrezia gainditzeko ahalegina. Gainera, “giza garapenaren ikuspegi integrala definituz, bere gain hartzen ditu giza eskubideen gaia, gobernantza egokia eta alderdi ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta garapenekoak”.

22. Garapenerako lankidetzaren inguruko hausnarketa eta sentiberatze-lan oso interesgarria egiten ari da erakunde hau, esate baterako, egiten ari den edizio lanetan. Kontuan hartzekoa da Marcellésiren *Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo* (2012).

Interesgarria da ikustea, bestalde, testu inguru horretan Nazio Batuen Garapen Programak definitutako ildotik giza garapena gizaki guztien aukeren zabalitze modura ulertzen dela, bai gaur egungo belaunaldien onurarako eta baita etorkizuneko belaunaldientzat ere. Hau da, "giza garapenaren oinarria garapenaren gunean gizakia dagoelako aitortza da, eta bere behar anitzak ase beharra: biziraupenarena, babesarena, sentimenduena, ulermenarena, kreatibitatearena, askatasunarena, aisiarena, parte-hartzearena, identitatearena, etab." Ikuspegi hori giza eskubideen hedadura unibertsalean ere oinarritzen da; eskubide horiek eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturak bilzen dituelarik.

Garapen iraunkorraren ikuspegitik Nafarroako lankidetzak Europako estrategiarekin bat dator aipatzerakoan garapen iraunkorra elkar elikatzen duten alderdi ekonomikoan, sozialean, ingurumenekoan eta munduko gobernantzan oinarritzen dela. Puntu honetan azpimarratu nahi genuke iraunkortasunaren interpretazio integratzaile horrek erakusten dituen aukera ezin hobea.

Planaren III kapituluarekin bat eginez, aipa dezagun bere helburu nagusia herrialde txiroenen garapenerako lagungarri izateko borondatea duela. Horretarako, alabaina, bere jarduera guztietan zehar-lerro modura definitu diren ikuspegiak barne hartu behar dira. Honakoak dira definituriko zehar-lerroak: giza garapena, generoa, giza eskubideak, garapen iraunkorra, parte-hartzea eta komunitatearen antolakuntza.

Laburbilduz esan dezagun, bestelako ideiak alboratu nahi izan gabe, Planak bere ikuspegia gaur egungo nazioarteko ildo nagusietan oinarritzen duela, Milurtekoko Garpen Helburuen eta giza garapen iraunkorraren lortze aldera, bi ildo horiek hartzen baititu printzipio zuzentzaile modura. Horrela bada, nabarmendu nahi genuke elkar eraginez doazen alderdi ekonomikoen, sozialen eta ingurumenekoen garrantzia, non kokatzen den kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren ikuspegia, garapen pertsonal eta sozialaren erakusle nagusi modura. Horregatik, gure iritzian, dokumentu honetan plazaratzen dugun proposamena, hain zuzen, jarduera-esparru berezia hizkuntza-aniztasunaren aitortzatik abiatuta hizkuntza-irizpidea txertatzekoa, Planak duen oinarri zuzentzailearen bilakaera logiko modura ikus daiteke.

## 6. Garapenerako lankidetzaproiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena

Dokumentu honen aurreko ataletan orain egingo dugun proposamenaren zergatia azaldu nahi izan dugu. Aipatu dugu tokian tokiko hizkuntza komunikazio-modu ezinbestekoa dela. Aipatu dugu, baita ere, hizkuntzek komunikazioaz gain kultura-esparruko ezaugarriak biltzen dituztela: naturarekiko harremanak, komunitatekoak, familiarrak...; horregatik, lankidetzaproiektuetan tokian tokiko hizkuntza erabiltzeak edo kontuan hartzeak gainerako proiektuak erraztuko litzukeela.

Garapen-helburu guztietan frogatu izan da tokian tokiko hizkuntzari leku propioa emanez gero, emaitza hobekien lortzen direla.

Era berean aipatu dugu, tokian tokiko hizkuntzarekiko errespetua adierazteak, erabilera sustatzeak eta bere balioaren aitortzak komunitatearen autoestimua sendotzen duela, eta gainerako ekimenak abian jartzeko kemena indartzen duela; norberaren kultura eta identitatea aintzat hartuz aukera gehiago izan ohi dela ekimen ekonomiko edo ingurumenekoak abian jartzeko.

Bestalde, garapen-helburu guztietan frogatu izan da tokian tokiko hizkuntzari leku propioa emanez gero, emaitza hobekien lortzen direla, komunitatearen senti-

beratzea handitzen dela, komunitatearen ahalmentzea sustatuz, norberaren hizkuntzak duintasuna, kontzientzia, erabakitze ahalmena ematen baitu.

Atal honetan egingo dugun proposamenaren helburua nazioarteko garapenerako lankidetzan hizkuntza-dimentsioak berriazko lekua izatea da, gaiaren gainean arduraren duten Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde finantzazailen plangintzetan zein eragileen proiektuetan. Proposamena egin aurretik, ordea, abiapuntuko honako aurrekariak gogoratzea komeni dela iruditzen zaigu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko agentziek **garapen iraunkorraren** kontzeptuarekin bat egin dute, horietako bakoitzak gaia modu propioan garatzen duen arren.
- Helburu hori erdiesteko **jarduera-esparru espezifikoak** bereizten dituzte denek, bakoitzak bereizketa hori bere erara egiten duen arren. Guztiak bat datoz gutxienez garapen ekonomikoa, giza eskubideen defentsa eta genero-berdintasuna helburu dituzten jarduerak sustatu beharrekin.
- Euskal erakundeek jarduera-esparru espezifiko guztietan txertatu behar diren **zehar-lerroetako gaiak** definitzen dituzte, genero-berdintasunarena eta ingurumenaren zaintzarena, besteak beste. Jarduera guztiak izan behar dituzte dimensio horietako pentsamendua (teoria) eta ekimena (praktika) barneratuta.
- Euskal erakundeek, oro har, bi motatako jarduerak egiten dituzte: a) garapen-bidean dauden herrialdeetako komunitateetan interbentziarako proiektuak, eta b) bertako gizartearen sentiberatzea eta elkartasuna lortzeko jarduerak.

Antolamendu hori jarraiki, hemen egingo dugun proposamena honakoa da:

Garapen iraunkorra helburu-gidaritzat hartuta, eta hizkuntza-ekologia paradigma teoriko eta praktikarako marko orokor modura:

A) Nazioarteko Garapenerako Lankidetzazuzentzeko eta diruz laguntzeko Herri Administrazioeko erakundeetako plan orokorretan:

1. Hizkuntzak biziberritzeko **jarduera-esparru espezifiko bat** eranstea, lehendik daudenekin batera ibilbide propioa egin dezan. Hizkuntzak biziberritzeko proiektuak identifikatu, sustatu, garatu eta ebaluatuko dituen jarduera-esparru berezia izango litzateke.
2. Hizkuntza-irizpidea gainerako jarduera-esparru guztietako egitasmoetan uztartuko duen **zehar-lerro** berri bat ezartzea.

3. Bertako gizartean munduko hizkuntza-galeraren inguruko sentiberatzea eta erantzunak sustatzeko ekimenak bultzatzea eta babestea (informazio/formaziorako komunikazio-saioak; nazioarteko hizkuntza-lankidetzeta sustatzeko ekimenak)
  4. Aurreko berrikuntzetan lagungarri izango den laguntza teknikoa eskaintzea.
- B) Nazioarteko Garapenerako Lankidetzan lanean ari diren talde eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE)
1. Hirugarren herrialdeetako programetan, hizkuntza-irizpidea kontuan hartzea proiektuetako fase guztietan: identifikazioan, diagnostikoan, diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.  
  
Zein motatako ekimenak eta jarduerak egin daitezke, ordea, hizkuntza biziberritzeko esparru honetan? Ondoko lerrootan esku-hartze programak diseinatzeko hainbat ideia bildu dira, zerrendak xehea izateko borondaterik ez duen arren:
    1. Komunitatearen hizkuntzaren galeraren inguruan sentiberatasuna lantzeko eta autoestimua sendotzeko proiektuak.
    2. Hizkuntzaren ezagutza edota erabilera sustatuko dituzten esparru zehatzetako jarduerak, oso lagungarriak izango baitira komunitate osoan hizkuntzaren aldeko sentiberatasuna eta autoestimua handitzeko.
      - Tokian tokiko hizkuntzak ikasi, erabili edota transmititzeko ekimen sentiberatzaileak.
      - Tokian tokiko hizkuntzarekiko jarrerak positibatuko dituzten ekimenak.
      - Tokian tokiko hizkuntza eta kulturaren arteko adierazpideen ekoizpena sustatuko duten ekimenak.
      - Tokian tokiko hizkuntza egungo beharretara egokitzeko lagungarri izango diren proiektuak.
      - Orain artean hizkuntza erabili ez den esparruetan berori erabiltzen hasteko proiektuak, eta sarbidea izan duenetan kalitatea hobetzeko modua izan dezaten.
    2. Bertako gizartean sentiberatze-ekimenak eta praktika errealak agerian jarritz, ohartzuz, haien balorazioa egin eta egiten lagundu, egokia dena bultzatuz eta ezegokia sahistuz, edo ordezkatzeko aukerak proposatuz. Bertako gizartean hizkuntza gutxituetako komunitateetako eta herrietako hizkuntza berreskuratzeko prozesuekiko sentiberatze-ekimenak, hizkuntzaren ekologiaren eta soziolinguistikaren oinarriak plazaratuz, hizkuntza-aniztasunaren alde onak aldarrikatuz eta hizkuntzak berreskuratzeko ekimenen aldeko balioak sustatuz, gizaki orok ditugun erantzukizunak eta aukerak azpimarratuz.

Proposamenak beraz, alde batetik, herri-administrazioko arduradunengan eragin nahi du hizkuntza biziberritzeko jarduera-esparru berri bat zabaldu dezaten, horrela, hizkuntzak biziberritzeko proiektuak identifikatu, sustatu eta garatzea ahalbidetuz, eta, bestetik, lan-ildo honetan ere murgiltzeko gonbidapena egin nahi die nazioarteko garapenerako lankidetzan ari diren Gobernu Kanpoko Erakundeek.

**Hizkuntza biziberritzeko jarduera esparrua txertatzeko hamar arrazoi****1. Garapen iraunkorra hizkuntzen iraunkortasunarekin batera izango da, ezinbestean.**

- Gizakiaren garapenak alderdi materialak eta immaterialak biltzen ditu. Giza garapen iraunkorra, beraz, herren geratzen da ez bada norberaren kultura-sistemak eta hizkuntza propioak eskaintzen duten dimentsio immateriala garatzen. Alderdi ekonomiko eta ingurumenekoarekin batera hizkuntza-dimentsioa aitortzea eta sustatzea beharrezkoa da garapen iraunkorra egia bihurtu dadin.

**2. Munduko hizkuntza-galeraren krisiari erantzun behar zaio** inoiz ezagutu ez den bezalako galeraren aurrean gaudelako; mende honen amaiera baino lehen, kasurik onenean, hizkuntzen erdiak ez dira hitz egingo, erantzunik eman ezean.

- Eurekin batera hizkuntzek gordetzen duten ezagutza, historia, ikuskera, balioen sistema, nitasuna, identitatearen funtsa... eta, baita, aniztasunak gizakiari ematen dion egokitze gaitasuna galduko dira... erantzun ezean.

**3. Hizkuntza-aniztasuna babestu eta sustatu behar da.**

- Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea inperatibo etikoa da; ez da garapen ekonomikoari erantsten zaion hautazko onura bat, aldiz, betebeharreko baldintza etikoa da.
- Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea ezinbesteko eginbeharra da giza eskubideen defentsa bermatzeko.
- Hizkuntza-aniztasunak berezko balio unibertsala du. Gaur egun, globalizazioaren eraginez inoiz ezagutu den hizkuntza-ukipen handiena ezagutzen du gizateriak. Horrek eskatzen du hizkuntzen arteko harreman iraunkorrak definitzen hastea.
- Hizkuntza-aniztasunaren defentsak hizkuntza bakoitzaren iraupenaren defentsa bermatu behar du.
- Hizkuntza-aniztasuna norbanakoaren mailan zein gizartearen mailan onuragarria da. Nolanahi ere bermatu behar da hizkuntza nagusiagoa ikasterakoan tokian tokikoa ikastea eta hitz egi-teari ez uztea.

**4. Hizkuntza galtzeko prozesuan sartzea ez da komunitatearen borondate librean hartutako erabakia.**

- Hori gerta dadin eragiten duten faktore-sortak anitzak dira; kasu bakoitzak berezitasun propioak ditu. Hala ere, oso ezagunak diren prozesu orokortuak ere erabakigarriak izan ohi dira. Esate baterako, tokian tokiko hizkuntza, identitate kultural pertsonala eta taldearena higatze-prozesuan sartzen dira ahalmen ekonomiko eta politiko handiagoa duen hizkuntza eta komunitatearen mesedetan.
- Batzuetan, hizkuntza nagusiagorako jauzia pixkanaka gertatzen da. Baina sarri askotan, aldaketa hori oso bortitza izaten da, debekuak, mehatxuak, mespretxuak, bazterketak edota zigorrak gertatzen baitira hizkuntzaren izenean. Ondorioz, bertako hizkuntzarekiko sentimendu ezkorrak eraikitzen dira, seme-alabenganako hizkuntza transmisioa eteteraino. Hain dago zabaldua fenomeno hori, ezen munduko hizkuntza-krisiaz hitz egin dezakegun, munduko bioaniztasunaren krisiaz hitz egiten dugunaren antzera.

**5. Mundu-mailako hizkuntza-galera masiboaren krisiaren sortzaileak ez dira hizkuntza-komunitate gutxituak; krisiaren biktimak dira.**

- Aldiz, aldaketarako protagonista aktiboak izango dira gutxiengoak, bai hizkuntzari dagokionez eta baita emakumeari dagokionez ere.

**6. Hizkuntza-komunitateen autoestimua hobetzea da helburua,** horrek hizkuntzaren erabilera sustatuko duelako. Hizkuntza-dimentsioko egitasmoak diseinatzearen helburua, hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko ezinbestean betebeharreko baldintza da.

- Autoestimua hobetzea norbanakoaren baitan gertatzen den prozesua da, baina batez ere modu kolektiboan gertatzen dena: indibiduala da hiztun bakoitzak jakin behar duelako zein

den bere betebeharrak hizkuntzari behar duen lekua emateko; kolektiboa da hizkuntza galtze-bidean jarriz gero, komunitateak berak erabaki kontzientea hartu behar duelako hizkuntzaren iraunkortasuna bermatu nahi badu.

- Hizkuntza-komunitate ahulduak bere lekua har dezan autoestimutik abiatuta ahalmentze-prozesuetara igaroko da, hizkuntzaren indarberritzearen inguruko erabakiak hartzeko.

**7. Nazioarteko garapen-lankidetzak badu eginkizun eta ardura berezia** ahuldutako hizkuntza-komunitateak xede-talde direnean. Izan ere, sarri askotan, hizkuntza-galera, bioaniztasunaren galera eta giza bazterketa edo marjinazioa elkarrekin gertatzen direlako.

- Hizkuntza-galeraren krisiaren aurrean ere, garapen-lankidetzak badu erantzuteko eginkizuna, muturreko pobrezia, giza eskubideen esparruan edo genero-ekitatea hedatzeko ekimenetan bere eginkizuna duen bezala.
- Lankidetzaren esparruan interbentzioak prestatzerakoan ardura berezia izan behar du, interbentzioa egingo den tokiko komunitatearentzat hizkuntza dominatzailearen jokaerak izan baitaitezke.
- Hizkuntza nagusietako hiztunek bereziki sentiberak izan behar dute hizkuntza-gaiarekiko, jarduera-esparru espezifiko interbentziorik bertako sentiberatasuna ahalik eta hobekien zainatzeko, eta gainerako esparruetan interbentzioa bada, bertan hizkuntza irizpidea txertatzeko.
- Garapen ekonomikoa helburu duten ekimenetan hartzaileek protagonista aktiboak izan behar duten bezala, hizkuntzaren esparruan ere, euren parte-hartze aktiboa sustatuko da, euren ikuskeraren errespetutik abiatuta.
- Hizkuntzen biziberritze ekimenak, beti ere bertatik sortuak, sarri giza garapenaren beste alortan pizgarri izan ohi dira.

**8. Hizkuntzen galera gelditzea gizateria osoarentzat onuragarria da.**

- Krisi ekologikoei aurre egiteko munduko eragile politiko eta sozialak aktibatzea beharrezkoa den bezala, hizkuntza-galeraren krisiaren aurrean modu bateratuan erantzutea gizateria osoaren onurarako izango da, prozesu guztiak elkarlotuta baitaude inoiz baino gehiago.
- Kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren defentsa eta garapen iraunkorraren nahia bildu beharko lirateke, estrategia bateratuak eta elkartasunezkoak sortzeko. Bi dimentsio horien arteko batuzaren bitartez soilik etekina atera dakioke globalizazioak dakartzan arriskuei aurre egin eta ematen dituen aukerak baliatzeari. Modu horretan soilik ekitatea eta justizia lortzeko bidea egingo litzateke.

**9. Gutxiengo kultural eta indigenen etorkizuna erantzun globalaren erantzunarekin bat joango da.**

- Zenbat eta komunitate gehiago hizkuntza biziberritzeko egitasmoetan sartu, orduan eta aukera gehiago egongo da komunitate bakoitzarentzat. Homogeneizazioa mundu-mailako krisia den bezala, erantzunak ere tamaina berekoa izan beharko lirateke. Gainerako krisiekin ere horrela gertatzen da.

**10. Euskal Herriko garapen-lankidetzak bertako esperientzia oso baliagarria konpartitu dezake** munduko beste komunitate askorekin, elkar elikatuz bi aldeetako prozesuek aberastuko direlako. Ildo horretan, azken urteotan nazioarteko lankidetzan metatutako esperientzia baliatu beharko litzateke proiektu eraginkorragoak abian jartzeko, eta euskal hizkuntzaren biziberritze-lanetan ari diren erakunde guztiek ere helburu konpartitu honetan parte aktiboagoa izan dezaketete.



## Bibliografia

- Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo - AECID 2012: *Plan Director de la Cooperación Española 2013-2016*. [Linean] [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.aecid.es/galerias/descargas/publicaciones/IV\\_Plan\\_DirectorCE\\_2013-2016\\_Final2.pdf](http://www.aecid.es/galerias/descargas/publicaciones/IV_Plan_DirectorCE_2013-2016_Final2.pdf)
- Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia 2009: *Garapenerako Lankidetzako Gida Plana 2009-2011*. [Linean] [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.alava.net/cs/Satellite?\\_charset=UTF-8&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDA\\_buscadore&language=eu\\_ES&cid=1193044806929&c=Page&pclaves=garapenerako+ankidetzeta&btnbuscar=Bilatu](http://www.alava.net/cs/Satellite?_charset=UTF-8&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDA_buscadore&language=eu_ES&cid=1193044806929&c=Page&pclaves=garapenerako+ankidetzeta&btnbuscar=Bilatu)
- Bakeaz 2012: *Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoa / Guía práctica para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*. [Linean] Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2013/01/guia-practica-ecologica\\_eu.pdf](http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2013/01/guia-practica-ecologica_eu.pdf)
- Bastardas i Boada, A. 2003. "Ecodinámica sociolingüística: comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica". [Linean]. *Revista de Lengua i Dret*. 39, 119-148. [Kontsulta: 2013-04-16] [http://www10.gencat.net/eapc\\_rld/revistes/revista.2008-09-19.0338091891/Ecodinamica\\_sociolingüistica\\_comparacions\\_i\\_analogies\\_entre\\_la\\_diversitat\\_lingüistica\\_i\\_la\\_diversitat/es/at\\_download/adjunt](http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2008-09-19.0338091891/Ecodinamica_sociolingüistica_comparacions_i_analogies_entre_la_diversitat_lingüistica_i_la_diversitat/es/at_download/adjunt)
- Bastardas i Boada, A. 2005. *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Centre d'Estudis de Temes Contemporanis. Angle Editorial.
- Bizkaiko Foru Aldundia 2013: *Bizkaiko Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea, 2013 -2015*. [Linean] Bilbo. [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/2\\_PLAN%20DIRECTOR\\_eus.pdf?idioma=EU&bnetmobile=0](http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/2_PLAN%20DIRECTOR_eus.pdf?idioma=EU&bnetmobile=0)
- Conferencia Mundial de Derechos Lingüísticos de Barcelona 1996: *Declaración Universal de los Derechos Lingüísticos*, [Linean] [Kontsulta: 2013-09-30]. <http://www.linguistic-declaration.org/versions/espanyol.pdf>
- Crystal, David 2007: *Hizkuntzaren iraultza*. Erein-UNESCO Etxea. Donostia.
- Eusko Jaurilaritza 2012: *2008-2011ko Garapen-lankidetzarako Gida, Plan Estrategikoa* [Linean]. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.elankidetz.euskadi.net/x63-planestr/eu/contenidos/informacion/plan\\_director/eu\\_plandire/plandirector.html](http://www.elankidetz.euskadi.net/x63-planestr/eu/contenidos/informacion/plan_director/eu_plandire/plandirector.html)
- Eustat 2011: *Garapen iraunkorraren adierazleak 2011*. [Linean]. [Kontsulta: 2013-09-30]. [http://www.eustat.es/documentos/Indicadores\\_de\\_Desarrollo\\_Sostenible\\_2011\\_c.pdf](http://www.eustat.es/documentos/Indicadores_de_Desarrollo_Sostenible_2011_c.pdf)
- Garapenerako Euskal Agentzia 2012: *II Borrador Anteproyecto plan estratégico y director 2012- 2015*. [Linean]. [Kontsulta: 2013-09-30] [http://www.irekia.euskadi.net/assets/a\\_documents/2095/anteproyecto\\_ped\\_201215.pdf?1335442945](http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/2095/anteproyecto_ped_201215.pdf?1335442945)
- Giles, H., R.Y. Bourhis eta D.M. Taylor 1977: "Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations". *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348). New York: Academic Press.
- Gipuzkoako Foru Aldundia 2013: *Garapenerako Lankidetzeta Foru Plana*. Donostia.

- Haugen E. 1972: *The Ecology of Languages*. Stanford University Press.
- Iñurrategi, I. 2013: *GGKEen jarduna eta praktika linguistikoa. Diagnostikoa eta etorkizunerako proposamena* (lan argitaratu gabea).
- Krauss, M. (1992): "The world's Languages in Crisis" in *Language* 68 (19, 4-10).
- Maffi, L. 2005: "Linguistic, Cultural and Biological Diversity". [Linean]. *Annual Review of Anthropology*.: [Kontsulta: 2013-04-16] [http://www.csinrcid.ca/downloads/maffi\\_linguistic\\_cultural\\_biological\\_diversity.pdf](http://www.csinrcid.ca/downloads/maffi_linguistic_cultural_biological_diversity.pdf)
- Mantini, M. eta Álvarez Cantalapiedra, S. 2010: *Cultura, Ambiente y Cooperación Internacional al Desarrollo. Líneas estratégicas de acción cultural en materia ambiental*. CIP-Ecosocial (FUHEM), AECID: Madril.
- Maraña, M. 2010: *Kultura eta garapena. Bilakaera eta etorkizuna*. Unesco Etxea – Lankoadernoak 1. Zenbakia. [Linean] Bilbo [Kontsulta 2013-09-30] [http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura\\_garapena.pdf](http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura_garapena.pdf)
- Marcellesi, F. 2012: *Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*. Bilbo: Bakeaz.
- Marcellesi, F., Palacios, I. 2008: "Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo" in *Cuadernos Bakeaz* 88. Políticas de cooperación.
- Martí, F., P. Ortega, I. Idiazabal, A. Barreña, P. Juaristi, C. Junyent, B. Uranga eta E. Amorrtu (2005): *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Unesco Etxea. Bilbo.
- Nafarroako Gobernua 2011: *II Plan Director de la Cooperación Navarra 2011-2014*, [Lineran] [Kontsulta: 2013-09-30] <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/6FF12E49-D516-45DD-B83D-10F3B092DE72/243755/IIPD.pdf>
- Nazio Batuak 1972: *Giza ingurumenari buruzko Stockholm-eko adierazpena*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.ordenjuridico.gob.mx/TratInt/Derechos%20Humanos/INST%2005.pdf>
- Nazio Batuak 1987: *Brundtland Report. Our Common Future. Report of the World Commission on Environment and Development*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.un-documents.net/our-common-future.pdf>
- Nazio Batuak 1992: *Declaration on the Rights of Persons Belonging to National or Ethnic, Religious and Linguistic Minorities*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.un.org/documents/ga/res/47/a47r135.htm>
- Nazio Batuak 2000. *Declaration of millennium*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://web.archive.org/web/20090418200336/http://www.un.org/millenniumgoals/bkgd.shtml>
- Nazio Batuak 2000: *Millennium Development Goals*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://web.archive.org/web/20090418200336/http://www.un.org/millenniumgoals/bkgd.shtml>
- Nazio Batuak 2002: *Cumbre de Johannesburgo –Cumbre mundial sobre desarrollo sostenible*. [Linean] <http://www.un.org/spanish/conferences/wssd/> [Kontsulta 2013-09-30].

- Nazio Batuak 2002. *Agenda 21*: [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://web.archive.org/web/20090420073232/http://www.un.org/esa/sustdev/documents/agenda21/spanish/agenda21sptoc.htm>
- Nazio Batuak 2012: *Report of the Independent Expert on minority issues, Rita Izsák*. United Nations. Human Rights Council. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] [http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session22/AHRC2249\\_English.PDF](http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session22/AHRC2249_English.PDF)
- Nazio Batuak 2012: *Sustainable Development: From Brundtland to Rio 2012*. [Linean]. Background Paper by Jphn Drexhage and Deborah Murphy. [Kontsulta 2013-09-30] [http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CC4QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.un.org%2Fwcm%2Fwebdav%2Fsite%2Fclimatechange%2Fshared%2Fgsp%2Fdocs%2FGSP1-6\\_Background%2520on%2520Sustainable%2520Devt.pdf&ei=Tqo6UvLTOtGB7Qam-4HoBw&usq=AFQjCNHv8HFmqxZLNWH95DyPvkehDr2Nw&sig2=5Q1Wjuq0ikDvDT6DhTANYQ](http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CC4QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.un.org%2Fwcm%2Fwebdav%2Fsite%2Fclimatechange%2Fshared%2Fgsp%2Fdocs%2FGSP1-6_Background%2520on%2520Sustainable%2520Devt.pdf&ei=Tqo6UvLTOtGB7Qam-4HoBw&usq=AFQjCNHv8HFmqxZLNWH95DyPvkehDr2Nw&sig2=5Q1Wjuq0ikDvDT6DhTANYQ)
- Nazio Batuetako Garapen Programa 1990: *Giza Garapenari buruzko Txostena*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh1990/capitulos/espanol/>
- Nazio Batuetako Garapen Programa 2011: *Giza Garapenari buruzko Txostena. Laburpena*. [Linean] UNESCO Etxea [Kontsulta 2013-09-30]. [http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/IDH2009\\_laburpena.pdf](http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/IDH2009_laburpena.pdf)
- Nazio Batuetako Garapen Programa 2011: *Informe sobre Desarrollo Humano 2011. Sostenibilidad y equidad: Un mejor futuro para todos*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] [http://hdr.undp.org/en/media/HDR\\_2011\\_ES\\_Complete.pdf](http://hdr.undp.org/en/media/HDR_2011_ES_Complete.pdf)
- Nazio Batuetako Garapen Programa 2013: *Informe sobre Desarrollo Humano 2013. El ascenso del Sur. Progreso humano en un mundo diverso*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] [http://hdr.undp.org/en/media/HDR2013\\_ES\\_Complete%20REV.pdf](http://hdr.undp.org/en/media/HDR2013_ES_Complete%20REV.pdf)
- Secretaría de Estado de Cooperación Internacional: *Estrategia de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible de la Cooperación Española. Resumen Ejecutivo*, [Linean] [Kontsulta 2013-09-30]. [http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CC4QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.aecid.es%2Fgalerias%2Fprogramas%2FVita%2Fdescargas%2FResumen\\_ejecutivo\\_Estrategia\\_MA.pdf&ei=uzU4UpfKHsra7AaF0YDICA&usq=A FQjCNEWmGh8Azd2eli0-5plUPmrx-8FrA&sig2=YyeNLONNwaRhNFg\\_w8sOug](http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CC4QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.aecid.es%2Fgalerias%2Fprogramas%2FVita%2Fdescargas%2FResumen_ejecutivo_Estrategia_MA.pdf&ei=uzU4UpfKHsra7AaF0YDICA&usq=A FQjCNEWmGh8Azd2eli0-5plUPmrx-8FrA&sig2=YyeNLONNwaRhNFg_w8sOug)
- UNESCO 1996: *Declaración Universal de Derechos Lingüísticos Preliminares*, [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/cpp/sp/declaraciones/linguisticos.htm>
- UNESCO 1996: *Nuestra diversidad creativa. Informe Pérez de Cuellar*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://unesdoc.unesco.org/images/0010/001055/105586sb.pdf>
- UNESCO 2001: *Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] [http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL\\_ID=13179&URL\\_DO=DO\\_TOPIC&URL\\_SECTION=201.html](http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13179&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html)
- UNESCO 2003: *Vitalidad y peligro de desaparición de las lenguas*. Grupo especial de expertos sobre las lenguas en peligro convocado por la UNESCO, [Linean] [Kontsulta 2013-09-30]. [http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/LVE\\_Spanish\\_EDITED%20FOR%20PUBLICATION.pdf](http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/LVE_Spanish_EDITED%20FOR%20PUBLICATION.pdf)

- UNESCO 2005. *Kultura adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioa*. [Linean] UNESCO Etxea: Bilbo [Kontsulta 2013-09-30] [http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura\\_Aniztasuna\\_Konbentzioa.pdf](http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura_Aniztasuna_Konbentzioa.pdf)
- UNESCO 2005: *Convention on the Protection and Promotion of the Diversity of Cultural Expressions*. [Linean] Paris. [Kontsulta 2013-09-30] <http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001429/142919e.pdf>
- UNESCO 2009: *Culture for Development Indicators*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/cultural-diversity/diversity-of-cultural-expressions/programmes/culture-for-development-indicators/key-dates/>
- UNESCO 2010: *Atlas de las Lenguas del Mundo en Peligro*, [Linean] Ediciones UNESCO. Paris. [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/es/atlasmap.html>
- UNESCO 2011: *Culture for Development Indicators (Analytical framework)*: [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] [http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/Conv2005\\_CDIndicators\\_Analytical\\_en.pdf](http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/Conv2005_CDIndicators_Analytical_en.pdf)
- UNESCO 2012: *UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/>
- UNESCO Bangkok 2010: *Why Language Matters for the Millenium Development Goals*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unescobkk.org/resources/e-library/publications/article/why-language-matters-for-the-millennium-development-goals/>
- UNESCO: *Endangered languages*. [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/>
- UNESCO: *Endangered languages. A methodology for assessing language vitality and endangerment*, [Linean] [Kontsulta 2013-09-30] <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality/>